ARGIA

UEUk 50 urte

Euskal unibertsitatea sortzeko bidea ez da bukatu

26-31.orrialdeak

2.787 | 2022 / 07 / 17 | 4,00 €

Uraska handien aurkako mugimendua zabaltzen doa

12 I NET HURBIL

"Antolakuntzarik gabeko teoriak ez du ezertarako balio"

16 I AMAIA ANDRIEU

"Aldareetan zeuden pertsonaia batzuk gorago kokatu nahi dituzte"

32 I AXIER LOPEZ

ARGIA

Babestu euskal kazetaritza independentea

Prezio finkorik gabe.

Ordaindu nahi duzuna.

Egin ARGIAkoa

www.argia.eus/eginargiakoa

ARGIA

2.787 zenbakia I Uztailak 17, 2022

Panorama

04 I ASTEKO ARGAZKIA
06 I AKTUALITATEA
07 I HUMANITATEAREN UNE GORENAK
07 I EZ HANKA EZ BURU

Iritziak

21 I ENDIKA ALABORT
22 I KATIXA DOLHARE
23 I BEÑAT MUGURUZA
23 I LAURA MINTEGI
24 I IÑAKI BARCENA

Finkoak

40 I DENBORAREN MAKINA
41 I ARGIA KOMUNITATEA
42 I BIZI BARATZEA
48 I KULTUR-KRITIKAK
51 I DENBORA-PASAK
52 I ARGI-KONTRA: AITOR BEDIALAUNETA
54 I EZETZ ASTEA ONDO BUKATU

AZALEKO ARGAZKIA: **UEU**

SAILEN GOIBURUETAKO ILUSTRAZIOAK: **CLIPART COURTESY FCIT**

DANI BLANCO

32 I **BERTAKO KOLONIZATZAILEEK HARTUAK DITUZTE EUSKAL HERRIKO KALEAK.**

Axier Lopezek *Gure heroiak* liburua idatzi du ARGIArekin, hain justu Elkanoren mundu biraren urteurrenean. Peru Iparragirrek egin dion elkarrizketan azaldu du munduan kolonizatzaileen eskulturak eta kale izenak eraisten ari diren unean Espainian eta Euskal Herrian are altare altuagoetara igoarazten ari garela.

Elkarrizketak eta erreportajeak

12 I NET HURBIL
Agroindustriaren uraska erraldoien aurkako mugimendua zabalduz doa
Jenofa Berhokoirigoin

16 I PERTSONAIA I AMAIA ANDRIEU
"Testuinguru politiko jakin batean torturatu ninduten"
Miel A. Elustondo

26 I UNIBERTSITATEA I UEU-K 50 URTE
Karlos Santamariaren euskal unibertsitatearen bidean
Miel A. Elustondo

36 I FEMINISMOA I TERESA MALDONADO
"Egindako esaldi feministen gehiegizko erabilera bateraezina da pentsamendu kritikoarekin"
June Fernandez / Pikara

44 I KULTURA
"LGTB mugimendua etsairik handiena bezala ulertzen dute poloniar politikek"
Ainhoa Gutierrez del Pozo

OLATUKOOP
EKONOMIA SOZIAL ERALDATZAILEAREN SAREKO KIDE GARA

ARGIA HIZKUNTZA POLITIKARAKO SAILBURUORDETZAK DIRUZ LAGUNTZEN DU:
EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA

Jabetza
Komunikazio Biziagoa
S.A.L. Ametzagaiña Taldeko partaidea
Lehendakaria
Onintza Irureta
Erredakzioa
Amaia Lekunberri, Axier Lopez, Eneritz Arzallus, Estitxu Eizagirre, Gorka Bereziartua, Jenofa Berhokoirigoin, Jon Torner, Lander Arbelaitz, Leire Artola, Maddi Viana, Mikel Garcia, Onintza Irureta, Pello Zubiria, Peru Iparragirre, Urko Apaolaza, Xabier Letona, Zigor Oleaga
Diseinua
Maitane Gartziandia
Argazkilaria
Dani Blanco
Produkzioa eta inprimaketa
Antza S.A.L.
Administrazioa
Jone Arzallus, Mari Karmen Loiarte
Salmenta
Karlos Olasolo, Olatz Korta, Pello Basurto
Azoka
Mikel Olabide
Idazkaritza
Aloña Soraluze, Bego Zuza
Web garapena
Asier Iturralde
Informatika
Iametza interaktiboa, S.L.

Lege gordailua
SS 837-2012
ISSN
0213-909X
Batzorde parekidea
72562 E

GUREKIN HARREMANETAN JARTZEKO
Posta elektronikoak
komertzial@argia.eus
komunitatea@argia.eus
Telefonoa
943371545
Gipuzkoa
Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria
Nafarroa
Gazteluko Plaza 44, 3. eskuina, 31001 Iruñea

Ametzagaiña taldeko kidea da ARGIA honako enpresekin batera:

antza KOMUNIKAZIO GRAFIKOA
iametza
ADUR software productions

Doan eta libre

ARGIAko edukiak kopiatu, moldatu, zabaldu eta argitara ditzakezu, gure egiletza aitortu eta baldintza beretan eginez gero. Are gehiago, gure edukiak ahalik eta gehien zabaltzea nahi dugu.

Lizentzia hau soilik ARGIAren edukientzat da baliagarria, baliteke beste testu eta argazki batzuek lizentzia hau ez izatea.

Herritarren palazioa

DINUKA LIYANAWATTE / REUTERS

AXIER LOPEZ

Sri Lankako presidente Gotabaya Rajapaksalek ihes egin du eta ezkutatuta jarraitzen du. Herritarrek, hilabetetako protesten ostean eta indar erakustaldi aparta eginez, presidentearen eta lehen ministroaren palazioak okupatu dituzte larunbatean Kolonbon. Gobernuko arduradunen dimisioak bata bestearen atzetik etorri dira, baina ofizialak izan arte herritarrek esan dute palazioan geratuko direla. Krisialdi ekonomiko, energetiko eta politiko berriaren lehen biktima izan da Sri Lanka, munduko hainbat txokotara zabaltzen ari dena: Senegal, Ruanda, Bahamak, Etiopia, Libano... Baina lehenetarikoak ere izan dira sumintzen, kalera ateratzen eta antolatzen kasta politikoaren aurka, igerileku pribatuan bainatu bitartean herritarrei egunean 10, 13 eta 15 orduko elektrizitate-mozketak inposatzen zizkieten horien kontra.

Eraikuntza enpresek Euskal Herrian iruzur egindako obrak

URKO APAOLAZA AVILA

Espainiako Estatuko Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalak egindako txostenean, enpresa eraikitzaile nagusiek iruzur egindako obren adibide ugari azaltzen da, tartean dira Euskal Herrian azken urteetan administrazio publikoek esleitutako azpiegitura esanguratsu batzuk.

Acciona, Dragados, FCC, Ferrovial, OHL eta Sacyr konpainiak –Espainiako Estatuan eraikuntzaren arloan nagusi direnak– 203 milioi euroko isuna ordaintzera zigortu ditu Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalak (MLBN), 25 urtez milaka lizitazio aldatzeagatik. Astero biltzen ziren elkarren artean informazioa pasa eta zein obratako eskaintza tekniko konpartitu behar zituzten erabakitzeko, lehiarako araudiaren guztiz kontrakoa dena.

MBLNk urteak daramatza auzia ikertzen, eta bere ebazpenaren txosten osoa argitaratu du. Isuna ezartzeko, kontuan eduki du denbora tarte horretan lizitazio publikoei loturik enpresa horiek izandako negozio bolumena. Zifra oso altuak dira, ACSk bakarrik –Dragados enpresaren bidez– 40.000 milioi euro mugitu zituen esparru horretan. Bestalde, elkarren artean lanak konpartitu dituzte lizitazioen aurrekontua 52.000 milioi eurokoa izan liteke, FCCk emandako datuen arabera.

Hernaniko Hegoaldeko Saihesbidea bitan banatzeko lanak (29 milioi euro); Leioan EHU parean saihesbidea egiteko obrak (9,1 milioi euro); Bilbo-Donostia trenbidean, Ermuako zatiko konponketak ETSk aginduta (25 milioi euro)...

Enpresek urte horietan guztietan egiten zituzten bileren datuekin Excel orrialde bat osatzen zuten eta hitzartutako lanak zein ziren zehazten zuten bertan. Milaka dira: Accionaren arabera 2008-2016 epean bakarrik 3.250 lan partekatu zituzten enpresok.

ZER EGIN DUTE EUSKAL HERRIAN?

Txostenean adibide batzuk baino ez dira eskaintzen, eta tartean Euskal Herrian esanguratsuak izan diren obrak ere badaude. Esaterako, Bilboaldeko Metropoliaren Hegoaldeko Saihesbidean, Supersur bezala ezaguna dena, Trapagaran eta Larraskitu tartean zeuden tunelak egiteko lanen lizitaziorako informazioa partekatu zuten.

Supersur-eko obrak Interbiak sozietateak lizitatu zituen, Bizkaiko Foru Aldundiak sorturiko sozietate publikoa, eta jokabide irregular horrekin Acciona, Sacyr, FCC eta Ferrovial eraikuntzako multinazionalek 425 milioi euroko aurrekontua zuten obrak eskuratu zituzten 2007an.

Adibide gehiago badaude: Hernaniko Hegoaldeko Saihesbidea bitan banatzeko lanak 2010ean (29 milioi euro); Leioan EHU parean saihesbidea egiteko lanak 2011n (9,1 milioi euro); URA agentziak lizitaturik, Mundakako itsasadarreko ezkerraldeko kolektore nagusiko obrak 2015ean (16 milioi); Bilbo-Donostia trenbidean, Ermuako zatiko konponketak ETSk aginduta 2012an (25 milioi euro)...

Horiek 2008 eta 2017 urte arteko adibideak baino ez dira, baina iruzur egiten zuen eraikuntza enpresen taldea, MLBNk G7 bezala izendatu duena, 1992an sortu zela kontuan edukita, askoz gehiago izan daitezke kaltea eragindako obrak. ●

GEOTUNEL

HUMANITATEAREN UNE GORENAK

Harridura-markak

ARITZ GALARRAGA

Hitz egiten entzun didanak badaki: apal aritzeko joera daukat, baxu, entzungaitz. Bizitzan gehien egin didaten galdera izango da, segur aski, "zer?". Edo, "barkatu, zer esan duzu?". Ez da nahitara egiten dudan gauza bat: naturak batzuei ahots tirrinta azkarra eskaini die, hogei mila legoatara entzuteko modukoa –edo, are okerrago, jatetxeko ondoko mahaietatik, elkarrizketa osorik irentsi behar izateraino–; beste batzuok, ordea, ahots hari fin batekin konformatu behar gara, eta esandakoa maiz samar errepikatzearekin.

Horregatik, asko harritu nintzen, behin, niri egindako elkarrizketa bat –ez dizkidate asko-asko egin, erraza da aurkitzen– harridura-markaz josia aurkitu nuenean –eta nigan sobera ohikoak ez diren "kar-kar" mordo batekin–. Minimoki ezagutzen nauen inork badaki hori ezinezkoa dela, elkarrizketatzailearen imajinazioaren emaitza izan behar zela –gaitz erdi hitz edo esaldirik maiuskulaz jarri ez zidanean–. Nire bizitzako egun handienetan ere –seme-alabak jaio zirenean, Real Union bigarren mailara igo zenean– gehienez pare bat harridura-marka erabiliko nituela kalkulatzen dut. Eta ez dut deskartatzen elkarrizketa hura txispatuta egin izana –egia esan, ez dut gogoratzen–; baina gehiegizkoa litzateke marka kopurua, halere.

Apal aritzeko joera daukat, beraz, are apalki, bizitzaren aurreko jarrera bat da. Idazten ere hala aritu nahi nuke, umil, ez dogmatiko, zalantzakor; naizen bezala, alegia. Harridura-marka izango zait, hartara, puntuazio-marken artean antipatikoena. Zutabe hauetan, luze gabe, zortzi zenbatu ditut, 223.677 karakteretatik (tarterik gabe) –pentsa, Baudelaireri eskainitako zutabe batean bakarrik zazpi zeuden–. Zarata gehiegi dago jada munduan, bazter-txoko honetatik ere oihuka aritzeko. Baten batek gerturatu nahiko balu lerro hauetara, hori bai, xumeki izango da ongi etorria. ●

EZ HANKA EZ BURU

ADUR LARREA
www.adurlarrea.com

Osasuna

Hego Euskal Herriko ospitaleetan udan gutxienez 1.000 ohe murriztuko dituztela ohartarazi du Satse erizainen sindikatuak. Covidaren zazpigarren olatuaren erdian eta osasungintzako profesionalak "erabat gainezka, akituta eta gainzamatuta" daudenean, erabakia larria dela eta udan ere jendea gaixotzen dela adierazi du sindikatuak.

Energia

Europako Parlamentuak energia nuklearra eta gasa "berde" izendatu ditu. Parlamentuak Europako Batzordearen proposamena onartu du. Ondorioz, orain arte energia berriztagarriek soilik jaso zitzaketen dirulaguntzak eskuratu ditzake gasaren eta energia nuklearraren industriak. EAJk aldeko boza eman du.

Garraioa

Uber enpresa estatubatuarrak mundu osoko hirietan sartzeko zein estrategia erabili zuen agerian utzi dute 2013 eta 2017 urteei dagokien filtratutako 124.000 dokumentuk. Legeak propio urratu, jendea engainatu eta gobernuen aurkako lobby-lana egin zituzten besteren artean, *The Guardian* egunkariak argitaratu duenez.

LURRALDEA ETA ARKITEKTURA

Ametsa

ULA IRURETAGOIENA

Amestu dut hirietako zonalde periurbanoa hiriaren bor-bor gune bat zela, aktibitatez eta jendez gainezka. Hiria elikatuko duten ortuekin batera, hiriak beharrezkoak dituen orotariko azpiegiturak bertan kokatzen ziren. Hirian sortzen diren elektronika gailuen berreskurapenerako lantegiak zeuden bertan, egun eskasian dauden metal eta baliabide askoren eskurapen lekua. Hiriaren meategiak bailiran, non bata zuriko pertsona askoren esfortzua bideraturik zegoen botatzen diren gailu eta objektuak berreskuratzera, piezak eta elementuak izpitzen banan-banan, material bakoitzari dedikazioa emanez. Ametsean hirigintza gogoetarik egiteko paradarik ez nuen arren, pentsa daiteke periurbanoan lanpostu asko sortzeko aukerarekin batera, akaso hiritar askoren lanpostu leku bilakatzean, autoaren beharra zeharo murrizteko aukera zabalduko zela, periurbanoaren biziberritzeak hiriaren funtzionamenduan eragin positiboa ekarriz.

Ametsean arreta eman zidan, aktibitate eta jendetzaren joan-etorriez gain, lekuaren edertasunak; igarotzeko atsegina eta arkitektura adibide onek janzten zituztela azpiegitura eta lantokien eraikin eta inguruneak. Periurbano zaindu baten itxurak egiten zuen ametsa sinestezin, errealitatetik urruti.

Periurbanoa da hirien zentroa inguratzen duen lurralde zatia, hiriaren zerbitzura dagoen lur eremua. Baina ezinbestekoa izanagatik, ez du hiriaren begirunerik gordetzen, eta ez du hiriak hain gogoko duen antolaketa eta irudi zainduarekin zerikusirik. Hiriaren B aldea da, "beste hori", hiriaren lurrazpiaren antzera, baina denon begietara ikusgai. Asko inporta duten eginkizunak burutzen dira bertan, elektrizitate zentralak, orotariko biltegiak hiria produktuz eta elikaduraz hornitzeko, ur araztegia, hondakinen bilketak... Eta seguraski hiriak behar izango dituen etorkizuneko industria, elikadura eta energia kudeatzeko leku estrategiko bilakatuko da berradiskidetze prozesuan. Trantsizio energetikorako leku bat amestu dut. ●

ANALISIA

EKINKLIK

Festak: biolentzia gune horiek

LEIRE ARTOLA ARIN

Azken urteetako gertakariek berriro agerian utzi dute gizakiok egoera berrietara ohitzeko eta egokitzeko dugun gaitasuna; onerako zein txarrerako, egoera guztiak normalizatzeko joera dugu. Bada, itzuli dira udako jaiak eta horretara ere ohitu gara, azken bi urteetan festan jarraitu izan bagenu bezala. Laura Mintegik pasa den asteko aldizkarian gogoetatu zuen festen berezitasunaz: "Transgresioarekin eta askatasunarekin identifikatzeak egiten ditu berezi norberaren herriko jaiak. (...) Gauza gutxi dira erakargarriagoak transgresioa eta askatasuna baino, zazpi egunez bada ere". Sanferminak bizipoza, magia, kaosa eta baikortasunarekin lotutako zenbait sentipenekin definitu zituen, eta irakurle asko identifikatuta sentitu ziren ziurrenik. Aldiz, beste batzuek "transgresioa eta askatasuna" hitzen atzeko tranpari erreparatuko zioten. Zeren, askatasunaren izenean, alkohola eta beste drogen izenean, normaltzat jotzen baititugu festa giroan soilik onartuko genituzkeen jarrerak.

Normalizatu dugu astero-astero komunikabideetan ikustea festen testuinguruan gizonek egiten dituzten sexu erasoen albisteak. Ohitu gara festen ondoren erasoak gaitzesteko manifestazioak egitera. Izan ere, ez da esajerazioa esatea jai guztietan egon dela erasoren bat, larriagoa edo ez, baina emakumeen eta gutxiengoen kolektiboen askatasunaren aurkako erasoak, finean. Mugimendu feministak ere barneratuta dauka erasoak egon, egongo direla, eta, horregatik, sanferminen atarian Iruñeko kaleak hartu zituen beltzez jantzitako emakume andanak, autodefentsa feministaldarrikatzeko. "Beldurrak gurekin jai!" izan zuten lema, baina hurrengo egunetan gorputz askotan beldurra jaia egitera atera da, halabeharrez. Gorputz horiek badakitelako gizonek inpunitate osoa dutela, eta badakitelako instituzioen protokoloak eta neurriak tiritak besterik ez direla, zauria saihesteko balio ez dutenak. Eta halaxe izan da Iruñeko jaietan ere: zauriak egunero. Zezenek korrikalariei (gehienak gizonezkoak) egiten dizkietenak baino sakonagoak eta sendatzen zailagoak.

Festak biolentziaz beteta daude, jendarte biolento batean bizi garenez gero. Baina desberdintasuna da festetako biolentzia normalizatuta daukala baita indarkeria gehien gaitzesten duen pertsonak ere. Festetan indarkeriari kolpeka erantzutea ohikoa da, normala. Lapurtu egin dizute? Emakume bati eraso egin dio gizonen batek? Jazartzen ari zaio *babaso*ren bat? Lasai, alboko gizonak emango dizkio ukabilkada batzuk eta "lezioa ikasita". Horra hor jaietan ikusten den beste jarrera normalizatu bat; emakumeen defentsaren izenean, emakumeak zapaltzeko beste modu bortitz bat. Batzuentzat zaila da jaiak askatasunez ospatzea, inongo ondoriorik gabe. Beste batzuek, ordea, transgresiotik urrun egiten dute parranda; izan ere, transgresioa da lege edo ohiturak ez betetzea, eta jendarte honen legea da oraindik ere indarkeria matxista. ●

MOTZEAN

Frantziako gobernu berriaren asmoetako bat da EDF energia enpresa multinazionalaren jabetza berriz ere estatuaren menpe egotea erabat. Egun, enpresaren %84 inguru da estatuarena.

Eñaut Aramendi sindikalista atxiloturik izan dute, hiru migratzaile Baionara eramateagatik. Frantziako gendarmeek Urruñako bidesarian atxilotu eta handik ordu batzuetara aske utzi dute.

Sanferminetako prozesioan, Curia kalean izandako istiluen harira, bost pertsona atxilotu dituzte. Horietako bati egotzi diote udaltzain bat jo eta sudurra apurtu izana.

Katixa Dolhare-Zaldunbide idazlea Euskal Kultur Erakundearen lehendakari izendatu dute. Erakundea 1990ean sortu zenetik, lehen emakume lehendakaria da.

Antxon Ezeiza zinemagile donostiarraren funts dokumentala, bibliografikoa eta grafikoa katalogatu du Euskadiko Filmategiak. Komunitate zientifikoaren eskura dago bertan.

2009 eta 2018 artean, plataforma ultrakatolikoek gutxienez 707,2 milioi dolar erabili zituzten Europako gizarte politiketan eragiteko emakumeen eta LGTBI kolektiboaren eskubideak murriztu asmoz.

"Gure aldarrikapenak lorgarriak dira, are gehiago langile guztien babesarekin"

MIKEL DIAZ DE ALDA
Mercedeseko Enpresa Batzordeko kidea. Abiadurak eta tenperaturak gora jarraitzen dute Mercedeseko lan hitzarmena berritzeko gatazkan.
ARGIA.EUS (2022-07-07)

"ASPALDITIK PROPOSATZEN ARI GAREN NEURRIAK KONTUAN HARTU IZAN BALIRA, AZKEN SUTEETAKO ASKO EZ ZIREN GERTATUKO"

EKOLOGISTAK MARTXAN, SUSTRAI ERAKUNTZA, LURRA
Hiru talde ekologisten esanetan, "Nafarroako suteen aurkako neurriak berandu datoz eta ez dira nahikoak".
2022-07-05

"Lekuan lekuko administrazioek osasun mentalera bideratutako inbertsioa eta inplikazioa handitzea premiazkoa da"

OSASUNAREN MUNDUKO ERAKUNDEA
Munduko kasik mila milioi lagunek buruko nahasmenduren bat dute, eta depresioak eta antsietateak %25 egin zuten gora pandemiaren lehen urtean, OMEren arabera.
2022-07-04

TEKNOLOGIA

GDPR lau urte ondoren

DIANA FRANCO

Jokabideen datuak merkatuen lehengai bezala erabiltzeko ibilbide batean izan gara azken hamar urteetan. Gizartea ezagutzeko eta gizartean eragin eta balioa sortzeko aukerak ematen dituen lehengaia da datua, eta beraz botere harremanetan eragin handia izan dezake.

Jokabideen datuen azterketak onurak ekarri ditzake, adibidez autobusa hartzeko jokabideak aztertuz autobusen maiztasuna indartu dezakegu pertsona gehiago dagoen uneetarako. Baina jokabideen azterketaren etekina bestelakoa izan daiteke: ekonomikoa edota politikoa, botere metaketara bideratua.

Europan badugu lege bat, horren inguruan pausoak ematen hasi zena orain dela lau urte: GDPR (General Data Protection Regulation, Datuak Babesteko Lege Orokorra). Bada, lege horren eta datuekiko merkatu dinamikaren inguruan azterketa egin du Eskubide Digitalen Europako Zentroak, eta honako ondorioa partekatu du: datuen industriak GDPR legearekin bizitzen ikasi du, bere negozio dinamikan aldaketa sakonik egin gabe.

Hona azpimarratu dituen bi ideia. GDPR oraindik ez da guztiz ulertzen, eta mehatxutzat hartzen da eragile askoren aldetik, babesten dituen oinarrizko eskubideak gutxiesten direlako. Legea ez betetzearen kontrola gero eta zailagoa bihurtzen ari da, digitalizazio teknologien gardentasun faltak eta dinamikak direla-eta.

Interesatzen zaidan beste ideia bat da datu pertsonalen izaera aldatzen ari dela, eta zentzu horretan, GDPRk izan behar duela garai hauetarako lege bizia.

Datuen –eta aztertzen diren jokabideen– oinarrizko eskubideak eremu digitalean ezartzea ez da erraza izango, dugun digitalizazioari forma ematen diotenean sortzen duten teknologia gehiena datuen ustiapenera bideratuta dagoelako. Beraz, GDPR eta beste lege batzuk atzetik ibiliko dira beti. Horregatik, eskubide hau defendatzen ikasi behar dugu, bai dagoena erregulatuz, bai GDPR datuen izaeraren ustiapen ereduetara egokituz. Eta baita teknologia eta digitalizazioa modu etikoagoan ulertuko duten eredu ezberdinak sortuz ere. ●

NAZIOARTEA

Estolda mediatikoen azkena

AXIER LOPEZ

2016ko maiatza. Hilabete inguru falta da Espainiako Erresumako hauteskunde orokorretarako. Unidas Podemos, urte horretan sortu zenetik, ondo kokatuta zegoela zirudien Espainiako Gobernuan eragiteko. Komunikabideetan era guztietako eraso eta erasoak ageri ziren ia egunero alderdiaren eta haren buruzagien aurka. Horietako bat izan zen alderdiko buru Pablo Iglesias Turriónen izenean, Granadetako Uharteetan, paradisu fiskal batean, irekitako banku kontu batean Nicolás Maduroren gobernuak 272.000 dolar ustez sartu izana; beti ere *OK Diario*ko egungo zuzendari Eduardo Inda eskuindar iruindarrak zabaldutakoaren arabera.

Iglesiasen aurkako akusazioak epaitegietan inolako ondoriorik izan ez zuen arren, hedabide eta sare sozialetan beste pieza bat izan zen orduko eskuindarren kontakizuna indartzeko: Podemos bozkatzea chavismoari botoa ematea da. Eta hala erabili zuten, nahiz eta egun baten buruan zenbait hedabidek Indaren gezurra agerian utzi.

Sei urte geroago, asteburu honetan, *Crónica Libre* hedabideak argi zegoena berretsi du: asmatutako amarrua zen. Espainiako Estatuko aparatu parapolizialen estolderietako aurpegirik ikusgarrienaren zenbait audio filtratu du hedabideak. Audio horietan José Manuel Villarejok Antonio García Ferrerasekin hitz egiten du, La Sexta kateko zuzendariarekin.

Kazetariaren eta Guardia Zibileko koronel ohi ustelaren arteko kolegeoa harrigarria da. Horrez gain, audioetan Villarejok eta Terrorismoaren eta Krimen Antolatuaren aurkako Inteligentzia Zentroko zuzendari José Luis Oliverasek diote gai izango liratekeela "banku kontu faltsuak sortzeko, Iglesiasen edo beste edozein pertsonaren izenean".

Kazetari batek nolatan zabal dezake berari gezurra iruditzen zaion informazio bat, argi eta garbi Espainiako estolda politiko eta mediatikoetatik ateratako *fake new* tankera osoa zuena? Delituaren ustezko egileak publikoki gezurtatu behar izatea nahikoa da jendearengan zalantza sortzeko eta eskuin mediatikoaren kontakizuna puzteko; kasu honetan, “Espainiaren aurkako mehatxu nagusia zen” Podemosen eragina kaltetzeko. Kazetari batzuek gezurra darabilte horretarako ahalmena eman dietelako, inon idatzi gabeko zigorgabetasunaren jabe direlako.

Asko hitz egin da Espainiako sistemaren eta haren estolden ustelkeria endemikoaz, baina gutxi aipatzen da, eta, batez ere, gutxi egiten da aparatu mediatiko parapolizialen aurka. Multinazionalen eta lobby politikoen jabe diren komunikabide nagusien boterea demasekoa da Espainiako Estatuan, baina dirudienez ez dago esku hartu nahi duen agintaririk panorama mediatikoa demokratizatzeko. Kazetaritza libre, independentea eta askotarikoa ez bada, ez baita demokraziarik. ●

Nola deshumanizatzen dituzten pertsona migratzaileak hedabideetan

2021ean, 26 egunkaritako 3.650 albiste aztertu ditu **Acoge** sareak, hedabideetan pertsona migratzaileei ematen zaien tratuaz txostena egiteko. Praktika txarrak jaso dituzte eta horietako zazpi bildu ditu Media.cat-ek:

Iturri gisa haiengana ez jotzea

Aztertutako edukien **%83**tan ez da migratzaileen ahotsik sartu, hedabideek ez dituzte informazio-iturri gisa hartzen.

Irudi sentsazionalistak aukeratzea

Pertsona migratzaileei lotutako edukien irudiak aztertuta, irudien **%20** desegokitzat jo dituzte, erdia baino gehiago erabat sentsazionalistak direla dio txostenak eta irudien **%35**ak gainera haurren eskubideak urratzen dituela.

"Pertsona" hitza saihestea

Aztertutako albisteen erdiak ez du pertsona hitza erabiltzen, migratzaileez aritzeko. Hizkuntzaren ekonomiagatik izan ohi da sarritan, baina pertsona migratzaileak deshumanizatzeari bide ematen dio.

Hizkuntza alarmista erabiltzea

Jende oldeaz, oldarraldiez, harresiak gainditzeko erasoez... mintzatzen dira hedabideak. Bost albistetik batek hizkuntza hiperbolikoa, militarizatua edo alarmista darabilela dio txostenak.

Nazionalitatea azpimarratzea beharrezkoa ez denean

Titularren heren bat sentsazionalista dela ondorioztatu dute eta izenburuen **%10**ak pertsonen nazionalitatea nabarmentzen duela, nahiz eta beharrezkoa ez izan informazioan.

Migratzaile rolean baino ez erakustea

Pertsona migratzaileei lotutako albisteen **%43** baino gehiago mugetako migrazio fluxuez edota migrazio politikez ari da, ez ditugu beste rol batzuetan ikusten. Haien bizitzaz, generoaz, LGTBI ikuspegiaz… hitz egiten duten albisteak apenas iristen diren **%7**ra.

Haurren ikuspegi ezkorra ematea

Haurrak eta adin txikikoak dira hedabideek okerren tratatzen dituztenak, dio txostenak. Aztertutako albisteen erdiak baino gehiagok gaztelaniazko MENA siglak (adin txikiko atzerritar ez-lagunduak) darabiltzate haurrak aipatzerakoan, albisteen **%14** kriminalizatzaileak dira eta **%44**ari testuingurua falta zaio.

AGROINDUSTRIAREN ETA BERE MEGA-BASSINE EDO **URASKA ERRALDOIEN AURKAKO MUGIMENDUA ZABALDUZ** ETA GOGORTUZ DOA FRANTZIAN

Lurzoruan, erreketan eta euri uharretan pilaturiko urak laborantza intentsiboko bakar batzuei bideratzeko makroproiektuak dira uraska erraldoiak. Bakar batzuk daude martxan, beste andana dago bidean eta guztira milako bat izanen dira hemendik gutxira Frantziako landa eremuetan barna. Horrelakorik ez dute nahi, ez laborantza herrikoian dabiltzanek, ez inguruko herritar anitzek, ezta ekologistek ere; eta aurkako mugimendu zabala loratzen ari da azken hilabeteetan. Urrats bat gehiago emanik, desobedientzia eta ekintza zuzena bideratzen hasi dira, baimenik gabe eta poliziari aurre eginez, azpiegiturak desmuntatuz.

JENOFA BERHOKOIRIGOIN

Abisua emana dute alde guztietatik: idortea pairatuko dugu uda honetan. Lurpeko urmaelak usaian baino hein apalagoan dira, eta hein kezkagarrian, egia erran. Udazken eta neguan bete ohi dira erreserbak –urritik aitzina otsaila arte– eta Frantzia mailan, demagun, ohiko heinaren %70 bete da azken honetan.

Testuinguru horretan berotzen ari da giroa Frantziako hainbat landa eremutan, auzi gatazkatsu bihurtuz *mega-bassine* edo uraska-erraldoien egitasmoak. Monokulturak ureztatzea bermatzeko ur-erreserba erraldoi artifizialak dira horiek. Hamabost bat metroko barnatasuna eta zortzi eta hemezortzi hektarea arteko zabalera duten eremu plastifikatuak dira –hamar futbol zelairen heina–, funtziotzat dutelarik urtean zehar bertan metatzea ura, ondotik, udan pentzeak ureztatu ahal izateko. Ofizialki, pilaturiko euria biltzeko da, baina azkenean, lurpeko eta erreketako ura izaten da bertaratua gehienbat, ur-ponpa sistemen bidez.

Confédération Paysanne nekazarien sindikatua –Euskal Herriko ELB honen parte da–, Lurraren Aldeko Altxamendua deitu herri mugimendua eta Bassines non merci (Uraskak, ez eskerrik asko) kolektiboa dira borroka honen lehen lerroan, eta egunez egun zabalduz eta lodituz doan mugimendua. Adibidez, 7.000 lagun batu ziren martxo hondarrean Deux-Sèvres departamenduko Rochenard herrixkan. Gas negargarrien artetik pasaz, polizien hesia gainditu eta ur-ponpa bat desmuntatuz obrak oztopatzea lortu zuten.

Aktibistek hasieratik argi dute auzia ez dela laborarien arteko gerla bat: "Hasieratik argi utzi dugu borroka hau ez dela 'laborari on' eta 'laborari txar'-en artekoa, agroindustria da jomugan daukaguna. Aitzineko protestan interpelaturiko pertsona ez da inoiz bere pentzeetan, 1.200 hektarea eta 20 konpainien jabe da", dio Lurraren Aldeko Altxamendua kolektiboko Lenak *La relève et la peste* komunikabideari.

Agroindustriaren mesedetara, orotara milako bat *mega-bassine* dituzte eraikitzekoak Frantzian barna. Ez da guti. Horregatik dute mobilizazioa

EKINTZA ZUZENA
Aurkakoen argumentuak eta eskakizunak ez direnez kontuan hartuak, ekintza zuzenaren eta desobedientziaren hautua egina dute aurkariek. Egitasmo horien bukaera eskatzen dute, ez gehiago, ez gutxiago.



XAVIER LEOTY AFP

hozka bat gorago kokatu: erantzuna sistematizatu dute, eta aldi oro, obrak oztopatzeko helburuarekin juntatuko dira obren gunean –bidean direnak gauzatuz gero, ondotik etorriko direnek bidea irekirik luketeelako–.

Ondokoa irakurri daiteke 40 bat egiturek izenpeturiko manifestuan: "Eraikuntza-lan bat hasiz gero, hortik hiru astetara elkartzeko deia luzatzen dizuegu, inoiz baino gehiago batzeko deia luzatzen dizuegu, manifestazioa egin eta obrak geldiarazteko. Behar bezain beste geratuko gara eta behar den aldi oro itzuliko gara". Estrategia honek badu izena: desobedientzia zibila eta ekintza zuzena, edo sabotajea ere bai... eta azpimagarria da daukan sostengu zabala. Izenpetzaileen artean dira sindikatuak, alderdi politikoak, elkarte ekologistak, anarkistak eta bestelako herritar kolektiboak. Frantziako Estatuari eskatzen dabiltzan motarioa ez datorrenez, desobedituz geldiarazteko determinazioarekin dabiltza.

"Urak lurzoruan edo erreketan egon behar du. Uraren gestio on bat bermatzeko, ahal den guztia egin behar da ura lurzoruan geldi dadin"

Christian Amblard

ATERABIDEA BAINO GEHIAGO, EGOERA OKERTZEKO EGITASMOA

Ekologikoki, "zentzugabetzat" dituzte *mega-bassine* horiek. Ondokoa azaltzen du *Radio France* irratian sistema hidrobiologikoetan aditua den Christian Amblard ikerlariak: "Ez dauka zentzurik gainazalean biltegien eraikitzeak. Bilduriko urak lurzoruan edo erreketetan egon behar luke. (...) Uraren gestio on bat bermatzeko, ahal den guztia egin behar da ura lurzoruan geldi dadin". Aditu honek dio lurrinketaren eraginez "%20 eta %60" galtzen dela. Hots, idorteari aurre egiteko bide izan beharrean, arazoa areagotzen dute.

Gainera, politikoa den gogoeta ere dakar borrokak: guztiena behar lukeen komuna bat pribatizatzeko bideak dira megaproiektu horiek. Confédération Paysanne sindikatuko bozeramaile Nicolas Girodek argi utzi nahi du ez direla ureztatzearen aurka, baina bai uraren metatze horren kontra: "Guztiona den ondasun baten pribatizazioa daukagu hor. *Mega-*

bassine horien aurka gara, laborantza eredu bakar baten mesedetara direlako, laborantza intentsiboarentzat". Gaur egun, bakar batzuk dute metaturiko ur horren erabilpena. Adibidez, Deux-Sèvres departamenduko hamazazpi egitasmoak bakarrik 220 etxalderentzat liratezke –orotara 5.371 baserri direlarik eremu horretan–. Zer erranik ez, desagerrarazten dituzten ehunka eta ehunka lur hektareei buruz. Urarekin zer egin, taldean eta kolektiboki erabaki behar dela dio, zehaztuz elikadura burujabetzaren zentzura doazen aktibitateak behar direla lagundu. Girodek ez du onartzen *mega-bassine*-n aldekoen argumentazioa, azkenik, Ukrainako Gerrak eragindako elikadura eskasiari aurre egiteko bidea dela dioena. "Badu 70 urte diskurtso berarekin direla. Elikadura burujabetzaz ari dira orain, baina atzealdean logika bera da: transgenikoak behar dituzte, animaledun irinak, diru publikoa, uraren metatze erraldoiak, guztia omen gosetearekin bukatzeko. Baina badu urteak sufrikarioan diren herriak daudela eta laborantza industrialak ez du arazoa konpontzen. Erronka ez da gehiago ekoiztea, baizik eta guztiontzako eskuragarritasuna".

"Guztiona den ondasun baten pribatizazioa daukagu. Laborantza eredu bakar baten mesedetara dira mega-bassine horiek, eredu intentsiboarentzat"

Nicolas Girod

ESTATUAK DIRUZTATURIKO EREDUA

Megaproiektu horiek estatuak sostengaturikoak dira, gastuen %70 diru publikoz ordaindua izanik. Hori horrela, gutxiengo bat eta laborantza eredu konkretu bat diruztatzen du estatuak, beste behin: eredu intentsibo eta industriala. Ordainez, produktu fitosanitarioen erabilpena gutitzeko gogoeta abiatzea edota hesiak landatzea jarria dute. "Gogoeta... benetako *green-washing*-an gara... 'gogoetatzearen' baldintzak guztia islatzen du...", Bassines non merci kolektiboaren iduriz.

Diotenez, klima larrialdiari aurre egiteko bideak dira megaproiektu horiek. Arazoa da monokulturan ekoizturiko landareek sekulako ur kantitateak eskatzen dituztela –adibiderik argiena dugu artoarena–, eta benetan idorteari edota klima aldaketari aurre egiteko, ekoizpen ereduaz gain, ekoizpenak ere aldatu beharko lituzketela, bioaniztasun gehiago bermatuz gainera. Laborantza ministerioaren argudioa izan ohi da "urik gabe ez dagoela nekazaritzarik"; baina, oroitarazi behar da ekoizpenen %95 aurrera doala ureztatze sistemarik gabe, hau da, soilik euriteei esker.

Ekintza zuzenaz gain, justiziaren bidea eta Europako instituzioen esparrua ere baliatzen dituzte aurkariek. Demagun, Europako Batzordera jo du

INFOLIBERTAIRE

DESMUNTAKETAK
Argazkian ageri da aktibista bat, desmuntaturiko ur-ponpa bat esku artean daukala. Hain zuzen, nahiz eta aldekoek erran euria metatzeko bidea dela, gehienbat inguruetako erreketako eta lurzoruko urak dira bertaratuak, desoreka eraginez.

DETERMINATURIK
Anitza da uraska erraldoien aurkako mugimendua eta azken aldian zabalduz doa, geroz eta aurkari gehiago dituela.

SOUNALET

Bassines non merci kolektiboak, honen arabera, bederatzi zuzentarau direlako zangopilaturik. "Uraren babesaz kezkatuta" eskaera serioski hartzen duela erantzun die Europako Batzordeak, Frantziako Estatuari ondoko betekizunak luzatuz: lurpeko uren kontrola hobetzea, proiektu horien kostu finantzario eta ekologikoa "gardentasunez " aurkeztea eta "uren gehiegizko metaketen" aurkako neurriak bideratzea. Dei Auzitegi batek ere berretsi egin du hainbat uraska erraldoien ilegalitatea. "Bataila juridiko horiek eraman beharrekoak dira, baina tamalez, gehienetan, epaiak berantegi datoz eta obra potolo batzuk jadanik abiaturik dira", Julien Le Guetek aktibistaren hitzetan.

Badirudi geroz eta traba gehiago dituela agroindustriak, eta horrek dakar hastapenean ondoan zituen elkarte geroz eta gehiago ari direla ateratzen egitasmoak kudeatzen dabiltzan batzar administratiboetatik. Bai, mugimendua puztuz doa eta badirudi Frantziako Gobernuak ez duela neurtzen parean daukan potentziala. Abisua emana du Bassines non merci mugimenduak: "Horrela segituz, Larzac-eko edo Notre-Dame-des-Landes-en eramandako borroken bidera gehituko zaio *mega-bassine*-ena". ●

"Horrela segituz, Larzac-eko edo Notre-Dame-des-Landes-en eramandako borroken bidera gehituko zaio mega-bassine-ena"

Bassines non merci kolektiboa

ZINKUNEGI OPTIKA
Hernani 23 · 20004 Donostia
T. 943 420 624
www.zinkunegioptika.com

Amaia Andrieu

SEXUA, KLASEA, NAZIOA

“

TESTUINGURU POLITIKO JAKIN BATEAN TORTURATU NINDUTEN, ALBO-KALTEA IZAN ZEN NIREA

”

Hamaikatan ikusi ditugu berak mugimendu feministaren barruan egindako marrazki, kartel eta logoak. Inoiz, bere eskuz idatzitako mezuak hormaren batean irakurri ere bai. Berak eginak zirela jakin ez guk, ordea, izenik ez baitzuten ageri. Jakin ez guk Amaia Andrieu Sanzek bere baitan daramala tortura, horrek ere ez baitu sinadurarik ageri.

MIEL A. ELUSTONDO ZALDI ERO

Zenbait hari-mutur biltzen saiatu naiz elkarrizketarako, bizpalau ditut hasikizun: tortura, EHU, Arabako Batzar Nagusiak... Zure hasierakorik ez dakit.

Bilbon jaio nintzen, Indautxun. Etxean gerrari buruz hitz egiteko beldurra zegoen. Guraso biak gerra galdu zutenen haurrak izan ziren. Bi familietan ezagutu zuten erbestea. Aitaren bi arrebak Holandan izan zituzten. Ama, berriz, hamabi urte zituela, Frantziako Sault de Vaucluse (Ventoux, Proventza) herrian amamarekin. Handik, Kataluniako Roda de Ter herrira jo zuten, errefuxiatu, pentsatuz aitaita ere hantxe zela, frontean. Gerra eta gero, Bilbora itzuli ziren denak.

Gerra galdu zutenen seme-alabak zuen aita-amak.

Oso Francoren kontrakoak biak, baina are gehiago amaren aldeko familiakoak, bai ama eta bai amama errepublikako emakumeen erakundeko kideak baitziren. Intsigniak ere bazituzten, baina Roda de Terren lurperatu behar izan zituzten, errepresioaren beldurretan. Natividad Perez Benguria nuen amama, emakume gogorra. Niri dagokidanez, Burgosko epaiketaren garaiaz gogoratzen naiz. Amaren nebak epaiketako grabazio famatua ekarri zuen, non aditzen baitira Mario Onandia *Gora Euskadi Askatuta!* oihuka eta epaituak *Eusko gudariak* kantatzen eta iskanbila guztia. Logelara sartu ziren grabazioa entzutera. Guk ez genekien zer ari ziren, han misterioren bat bazela besterik. Ama negarrez atera zen logelatik...

Etxe barruko giroa, batetik, kalekoa bestetik...

Bilboko errepresioa gogoratzen dut. Umeak ginen, eta Areatzatik barrena gindoazen aitaren autoan, eta, orduantxe, Poliziaren karga: “Makurtu, makurtu!”, esan zigun aitak. Eta Polizia, eta karga!... Beste behin, berdin, eskolara bidean ni, Bilboko ingeniaritza parean, Poliziaren karga! Orduko hartan, ordea, tartean harrapatu ninduen! Zer zen hura! Edo ikurriña debekatuta zegoen

Amaia Andrieu Sanz

BILBO, 1957

Arte Ederrak ikasketak eta Psikodidaktika masterra egina, EHUko Gasteizko Hezkuntza Fakultatean egin du laneko bizia, 1980an hasi zenetik 2017an erretiratu arte. Seme baten ama da. Gertakizun politikoek markatu dute bere bizialdia, Burgosko epaiketa, Francoren heriotza, Gasteizko Martxoak 3, Josu Muguruzaren hilketa… Bidean, tortura. Horrekin batera, iragan mendeko 70eko hamarraldiaz gero, osorik egin du Euskal Herriko mugimendu feministaren bidea, Bizkaiko Emakumeen Asanblada, bateko Aizan! eta besteko Egizan, oraingo Bilgune Feminista baino lehen. Arabako Batzar Nagusietako kide da 2021eko otsailetik EH Bilduren batzarkide-taldean: erronka berri bat esperimentatzeko aukera.

garaian, aitaren lagun bati isuna jarri ziotela hura eramateagatik-edo…

1975ean hil zen Franco. 19 urte zuk.
Errekaldeberriko institutuan egin nuen UBI, eta horrek erabat markatu ninduen. Aita delineatzaile genuen —delineatzaile zen eta harrobietarako makineria egiten zuen; enpresa txiki baten jabe zen—, aberaskumea ni, eta Errekaldeberri, berriz, langile-auzoa, gabezia handikoa: zenbait kale asfaltatu gabe, semafororik ez, estolderia desastre hutsa… Institutuan, gaztetaldea osatu genuen: haurrentzako aisialdi-begirale lana egiten hasi nintzen, adibidez, Artazuko parrokian eta auzoko bizimoduan eta borroketan sartu nintzen.

Zein ziren auzoaren borrokak, garai hartan?
Liburu bat bada garai hartakoa, *El libro negro de Rekaldeberri* (Errekaldeberriko liburu beltza). Auzoaren azterketa urbanistikoa egin zuen bertako auzo-elkarteak, eta hantxe ibili ginen gazteok semaforoak eta estoldak kontatzen, non kokatuta zeuden zehazten, kamioiak nondik igarotzen ziren seinalatzen… Langile-auzoa zen Errekaldeberri eta langileek zuzendu zuten lan hura, baina egia da langileen artean ere bazirela batzuk besteak baino ilustratuagoak, formazio politikoa zeukatenak, garaiko alderdi eta sindikatuetan ari zirenak. Gazteok, berriz, haien klase-ikuspuntuko azterketari batu gintzaizkion. Hortxe hasi zen nire formazio politikoa.

Ezkutukoa beharko zuen izan…
Erabat klandestinoa. "Eskola sozialak" esaten zen, Elizak utzitako lokaletan egiten ziren saioak. Auzoan bi abade ziren, "abade gorriak", apaiz konprometituak, Rapel eta Txema —auskalo zein zituzten deiturak—, herri mugimenduari guztiz lotuta bizi ziren. Gero apaizgoari utzi zioten, jakina. Eskola sozial haietan Iñaki O'Shea izan nuen lehen politika irakaslea. Berak azaldu zizkigun Iraultza sobietarraren historia, marxismoaren gakoak… 18-19 urte genituen. Hurrena, Errekaldeberriko emakume gazteen taldea sortu genuen. Autokontzientzia taldea zen. Bortxaketa bat-edo izan zen Errekaldeberriko jaietan, eta antolatzen hasi ginen: feminismoari buruzko testuak irakurri, eztabaidatu, eta gure ondorioak marrazten hasi ginen, ez alferrik nintzen ordurako Arte Ederretako ikaslea.

Zer esan nahi du zuen irakurketen ondorioak marrazten hasi zinetela?
Bada, gure mezuak publizitate-hesietan itsasten genituela. Testua erabaki, marrazkia ere pentsatu, hartu eskailera, hartu kola, eta publizitatearen gainean geure mezua ezartzen genuen. Panfletoak ere nahi beste egiten genituen. *Agitprop*, alegia: agitazioa eta propaganda. Auzoko emakumeen kontzientzia pizteko jarduerak. Ordurako, Errekaldeberriko emakumeen batzorde bat lanean ari zen, haurtzaindegia eskatzen, modulu psiko-soziala lortzeko borrokan, familia-plangintzarako zentroa aldarrikatzen —lortu ere egin zuten— , eta, laster, 1977an bi taldeok batu ginen.

Halako batean, atxilotu egin zintuztela dakit, torturatu egin zintuztela…
1981ean izan zen hori. Arte Ederrak amaitu eta Gasteizko Irakasle Eskolan lanean ari nintzela. Harremanak nituen ETAko Juan Antonio Madariaga Erezumarekin, Madril komandokoa. Harrapatu zuten, eta sarekada itzela egin zuten. 1981eko urrian izan zen. Otsailean, Joxe Arregi hil zuten, torturatuta, Madrilen. Hura otsailean hil, ni urrian atxilotu. Eta torturatu. Beste asko baino gutxiago torturatu ninduten, garai hartan zenbat eta nola torturatzen zuten kontuan hartuz gero, behintzat. Fakultateko bulegora etorri zitzaidan polizia sekretua. Inork ez zuen jakin. Ikasleentzako testuak idazten ari nintzela, hartu eta eraman ninduten. Lehenengo, Gasteizko polizia etxean eduki ninduten. Gero, Madrileko DGSra (Segurtasuneko Zuzendaritza Nagusia, Eguzki Atean).

Hantxe hila zuten Joxe Arregi hilabete batzuk lehenago.
Ni ere atxilotu eta torturatu egin ninduten. Gasteizen, kirofanoarena egin zidaten, sabelean jotzen ninduten… abdominalak zeharo minberatuta gelditu zitzaizkidan. Hurrena, kolpeka eraso zidaten, ostikoka… Halako batean, iletik tinkatu ninduten, ile-mataza kendu zidaten, soilunea utzi zidaten… Epailearen aurrera eraman

nindutenean, itxura penagarria nuen. Esan nion epaileari, baina ezer ez. Forentseak artatu ninduen, baina artatu ez beste guztiak egin zizkidan: haren mespretxua jaso nuen. Buruaren bi aldeak oso handituta neuzkan, alde bietan batera jotzen ninduten. Bi hilabete ere behar izan nituen neure onera etortzeko. Ordurako, kartzelan nengoen. Lotara nahi, eta min buruaren alde batean. Beste aldera jiratu, eta berdin. Ohetik jaikitzen ere lagundu behar izaten zidaten.

Kartzelara sartu zintuzten, beraz.

Yeseriasera, Madrilgo emakume kartzelara. Ez nuen inor ezagutzen. Hainbat atxilotuk furgoian ezagutu genuen elkar, kantari hasi ginen, kartzelara gindera-matzatela.

Furgoian kantari?

Bai, hunkituta geunden! Torturak-eta amaituta, gainerakoa ja berdin zitzaigun. Ez nintzen torturatu bakarra, jakina. Badakit Jimena Alonso ere torturatu zutela, Madrilgo feministe, eta beste zenbait emakume.

Zer diozu generoaz? Diferente torturatzen da emakumea?

Uste dut diferente torturatzen dela pertsona bakoitza. Tortura oso espezifikoa da. Pertsona suntsitzea da torturaren helburua eta, horretarako, tortura-metodoak egokitu egin behar izaten dituzte. Gizonezkoei barrabiletan elektrodoak aplikatzen badizkiete –horixe egin baitzioten *Madari*-ri "[J.A. Madariaga], adibidez– , niri mehatxuka ere eraso zidaten, tortura psikologikoa eragin, "zure ahizparen etxera joango gara eta ikusiko duzu, halako eta halako egingo diogu!". Ahizpa gaztea Madrilen bizi zitzaidan garai hartan! Kirofanoarena egin bitartean, sabelean kolpeka ari zitzaizkidala, berriz, "Ez duzu haurrik izango!" hots egiten zuten. Holaxe. Baina zortea izan nuen, ez ninduten biluztu, ez ninduten bortxatu... badakigu-eta hori ere egin izan dutela.

> ***"Tortura dela eta, niri izugarri lagundu dit aipatu mahai-inguru horietan parte hartzeak, kolektibo baten parte sentitzeak"***

Zer deritzezu torturaren inguruan egiten diren galderei, ahazten den, ez den ahazten, barkatzen den, biktimei, torturatzaileei...?

Ez dakit, bada, zer esan... baina ahaztu, tortura inoiz ez da ahazten. Hainbat gertakizun politikok markatu dute nire bizitza, eta tortura eta kartzela izan dira haietako batzuk. Nik neuretzat gorde dut tortura, nahiz eta familiaren edo lagunen testuinguruan eta bai epailearen aurrean haietaz mintzatu naizen. Behin, unibertsitatean, torturari buruz gazteek antolatutako mahai-inguru batean par-

EUSKARA FEMINISMOAN

"Unibertsitatean lanean ari nintzela ikasi nuen euskaraz. Lau hilabetez liberatu ninduten eta Kortezubin izan nintzen AEKren barnetegian. Santi Brouard hil zuten urtean izan zen. Gero, Lesakara joan nintzen neure kabuz udako barnetegira. Ordu arte, gaztelaniaz egin nuen dena: Errekaldeberriko lanak, feminismoa... Orduko feminismoan testu guztiak gaztelaniaz egosten genituen. Aizan! eta Egizanen garaietan apustu sendoa egin genuen euskararen alde. Orain, Bilgune Feministan, testu guztiak euskaraz egiten dira, eta gero itzuli. Irauli egin da egoera".

EUSKARA BATZAR NAGUSIETAN

"Nik euskaraz aurkeztu ditut ekimenak —oso gutxi—, eta euskaraz egiten dut haien defentsa. Gure taldean [EH Bildu], euskaraz egiten dugu lan gehiena eta zerbait ere gaztelaniaz, tartean badaudelako behar besteko euskara-maila oraindik ez duten kideak. Itzultzaileak gaztelaniara itzultzen ditu gure mozioak eta talde guztiei helarazten zaizkie. Batzarkide batzuek euskaraz egiten dugu, beste batzuek gaztelaniaz. Baina instituzioen hizkuntza nagusia gaztelania da".

Azken hitza

DEMOKRAZIA

"Hau ez da demokrazia, ez behintzat nik ulertzen dudana. Monarkia parlamentario baten menpean bizi gara Euskal Herriko hegoaldean!, ez ahaztu hori! Demokrazia, zer demokrazia? Demokrazia bahitua!".

te hartu nuen, baina besterik ez. Harrezkero, 2016an, EHU eta Kriminologiaren Euskal Institutuan burutzen ari ziren torturari buruzko ikerketan nire kasuaren berri ematera animatu ninduten. 2018an, Egiari Zor fundazioak emakumeaz eta torturaz antolatutako mahai-inguru batean hartu nuen parte Donostiako Koldo Mitxelena kulturgunean, eta 2020an, berriz, Foro Sozialaren batean, Gasteizen, Europa jauregian. Berri samarra naiz horretaz hitz egiten…

Torturaren ondorioak baitezpadakoak dira, behin eta berriz eta askotan ikusi dugunez.

Hor gelditzen zaizu hori ere. Ondorio fisikorik utzi didan ez dakit… beharbada bai, bost disko dituk kaltetuak, bost hernia, eta baliteke egin zizkidaten tortura haiekin erlazionatuta egotea. Ez dakit. Baina gauza bat badakit, torturaren ondorioez ari garela: gelditzen da beldurra, berriro gerta dakizukeela pentsatzen duzu, Poliziak esango ote duen: "Hor dabil hori oraindik, gerra ematen! Berriz harrapatuko dugu!". Baina beldur horri aurre egiten ikasi behar duzu, bestela akabo! Eta niri izugarri lagundu dit aipatu mahai-inguru horietan parte hartzeak, kolektibo baten parte sentitzeak. Orain lasaiago nago, baina uste dut hori hortxe dela beti, zelatatua zaren kezka. Torturatzaileei buruz, berriz, ez dut ezer pentsatzen. Nire buruan ez da barkamena sartzen, moralaren arlotik aldendu nahi dut gaia. Badakit testuinguru politiko jakin batean torturatu nindutela, tokatu zitzaidala; albo-kaltea izan zen nirea.

Urtebete egin zenuen Yeseriasen, emakumeen kartzelan.

Bai, ia urtebete. Denbora gutxi baina oso intentsoa. Emakume ederrak ezagutu nituen. Eta asko ikasi nuen haiekin eta haiengandik. 1982ko irailean irten nintzen, baldintzapean, garai hartako 500.000 pezetako fidantzaren truke eta fiskaltzak zortzi urteko kartzela zigorra eskatuta. Irten nintzenean kartzelan bigarren gose greban ginen, borrokan, kanpoko borroka politikoarekin bat eginez. Kartzelatik irten eta hauteskunde kanpainan zeuden hemen, eta Yeseriasetik etorri eta hurrengo egunean mitina Errekaldeberrin: Santi Brouard, Izaskun Larreategi… Kartzelan, agiria prestatu genuen eta niri hura irakurtzea egokitu zitzaidan. Ai ama! Kideak kartzelan, eta ni han nengoela ohartu nintzenean, ahal izan nuen bezala esan nuen esan behar nuena, eta gero negarrez lehertu nintzen. Desastrea! Oso ahul nengoen, kartzelatik irten berria, orduantxe purea jaten hasia-edo. Oso nekez errekuperatu nintzen.

Feminismotik ari zinetela borrokan esan diguzu. Horretan ari zara Errekaldeberriko garaiaz geroztik.

Mugimendu feministan sartuta, bai. Arte Ederretako ikaslea nintzela arteari buruzko oinarrizko testu marxista batzuk hasi ginen irakurtzen (Hadjinikolaou, Arvatov, Carpani…). Ikaskide talde bateko lagunok argi ikusi genuen ez genuela artista izan nahi. Gure trebetasunak herri mugimenduen zerbitzura jartzeko hautua egin genuen. Eta mugimendu feministan propaganda egin behar genuenez, diseinu grafikoan saiatu nintzen beste kide batzuekin elkarlanean. Egon naizen erakunde feministetan propaganda edo komunikazio lantaldea antolatu dugu. Kartelak egiten genituen, *pegata*-k, txapak, kamisetetarako irudiak, panfletoak, aldizkariak, agenda feministak... Esaterako, Aizan!-en agenda ARGIAren egoitzan maketatzen uzten ziguten! Bada liburu bat, hiru liburu, *Euskal Herriko kartelak*, eta hantxe ageri dira guk egindako lanetako batzuk, anonimoak. Baita *Gure genealogia feministak* liburuan ere. Aizan!-en logoa, Egizanena, Bilgune Feministarena… guk egindakoak dira.

Zer aldatu da mugimenduaren baitan?

Dena eta ezer ez. Patriarkatuaren inguruko produkzio teorikoa asko hazi da. Oso interesgarri dago panorama. Ikasten jarraitzen dut. Halere, interesgarriagoa da feminismoaren praktika politikoa, txikitik egiten dena, herri eta auzo bakoitzetik ehuntzen, antolatzen dena. Hortik elikatu ziren 2018 eta 2019ko greba feministak. Antolakuntzarik gabeko teoriak ez du ezertarako balio. Praktikaren gaineko epistemologia egiten dugula esan zigun Angela Davisek gurekin egon zenean 2016an. Eta horrekin gelditzen naiz.

Zein mugarri dira zuk ezagutu duzun mugimenduaren barruan?

Mugarriak izan dira Euskal Herriko jardunaldi feminista guztiak, 1977an hasi eta bosgarrenak burutu genituen 2019an. Doktorego tesi baterako materiala dago hor. Horiez gain, gertaera batzuk aipatzearren, abortatzeko eskubidearen aldeko borroka, zapalkuntza hirukoitzaren planteamenduaren sorrera... Noski! Kar, kar... Feminismo instituzionalaren hasiera, hetero-arautik kanpoko sexu-genero identitate berrien aldeko borroka... Hortxe ari gara gu, beti borrokan, batzuk mugimendu feminista autonomoan, eta beste batzuk alderdi politikoren edo sindikaturen baten barruan. Eta, benetan, mugimendu feminista autonomoa funtsezkoa da emakumeen askapenerako borrokan bidea markatzeko. Baina, gaur egun, inoiz baino baldintza objektibo gehiago dago elkarlanean aritzeko erakunde mistoetan militatzen duten ezkerreko emakume feministekin. Konplizitate horiek ezinbestekoak dira euskal estatu sozialista eta feminista lortu nahi dugunontzat.

1970 inguruan, Errekaldeberriko jaietan izandako sexu-eraso batek mugiarazi zintuzten. Oraingo egunean ere, horretan gara, sexu-erasoak dira beti.

Horrek ez dauka etenik. Edo sistema osoa iraultzen dugu, edo ez dago modurik. ●

Estrategia eta erremintak

ENDIKA ALABORT AMUNDARAIN
EKONOMIALARIA

Metalgintza sektoreko langileen greba. Bilboko Metroa. Gipuzkoako erresidentziak. Hiru adibideak azken hilabetean martxan jarri diren greba nabarienak dira, agerian utziz langileria bere lan baldintzak hobetzeko prest dagoela. Horien aurrean, patronalak eta administrazio publikoak, langileen bortizkeria eta zorrozkeria salatzen dutenek, klase gatazka isilarazi nahi dute.

Émile Pougetek argi definitu zituen langile klasearen borroka metodo nagusienak: greba, boikota eta sabotajea. Ekintza zuzenaren adibideak dira eta botereek bortizkeriarekin lotu nahi izan dituzte. Sabotajea oso kriminalizatuta dago, eta administrazioa boikota juridikoki desmuntatzen saiatu da. Adibide gisa, 2014an Lehiaren Euskal Agintaritzak 800.000 euroko isuna jarri zien Bilboko portuko garraiolariei, boikota sustatzeagatik. Euskadiko Justizia Auzitegi Nagusiak isuna bertan behera utzi zuen, baina gatazka-une batean, sustatzaileei eta parte-hartzaileei eragiten dien shockak ekintza geldiarazi dezake. Greba eskubidea ere oso mugatuta dago. Espainiar legediaren kasuan, legez kontrakoak dira txandakako grebak, arduragrebak, sektore estrategikoetan egiten direnak, besteak beste. Legez kontrakoak dira arrazoi politikoengatiko grebak, elkartasunekoak eta beste mota batzuk. Horri gehitu beharko genioke administrazio publikoek egiten duten gutxieneko zerbitzuen erabilera grebak hausteko.

> Erresistentzia kutxa ez da erremedio magiko bat, baina ezinbesteko elementua izan daiteke lan baldintzen okertzeari aurre egiteko. Baita enplegua mantentzeko ere

Oztopoak oztopo, hala ere, gure lurraldean grebak egiten dira: 2021ean, Espainiako Erresumako greben %47 Euskal Herri penintsularrean egin ziren. Nola azaldu daiteke, orduan, hain mugatuta dagoen eskubidearen erabilera? Greben inguruan erabiltzen diren estrategiak funtsezkoak dira, Las Herasek eta Rodríguezek 2020ko artikulu batean aztertu zuten bezala (*Striking to renew: Basque Unions' organizing strategies and use of the Strike-Fund*). Autoreek adierazi zuten, besteak beste, faktore garrantzitsua dela kontrabotereko sindikalismoaren eredua, gatazka berrikuntza-estrategien erdigunean jartzen duena eta egindako greba-kopuruaren adierazgarria izan daitekeena. Antolaketa estrategia horrek ez ditu langileak mobilizatu nahi "indar-ilusioa sortzeko", baizik eta eredu sindikal kohesionatu eta dinamikoago batera doan mobilizazioa lortzeko. Lehia-estrategia horretan, erresistentzia kutxa antolaketa-botereko baliabide erabakigarria da, sindikatuko afiliatuen erosahalmenetik biltzen dena, behar handiena duten kide militanteei laguntzeko.

Horrela, kontraboterearen eredua jarraitzen duten erakunde sindikalek erresistentzia kutxak indarrean dituzte, edo ezartzeko eztabaidan daude. Enpresek langileen aurrean inolako erantzukizunik ez izateko estrategiak erabiltzen dituzte, eta lan-baldintzen prekarizazio prozesu bortitzean, ezinbestekoa da ahalik eta tresna gehien izatea; erresistentzia kutxa funtsezkoa izan daiteke gatazkak langileen alde konpontzeko. Are gehiago bizitzaren kostua igotzen ari den eta bizi dugun krisi amaigabea gogortzen ari den testuinguruan.

Erresistentzia kutxa ez da erremedio magikoa, baina ezinbesteko elementua izan daiteke lan baldintzen okertzeari aurre egiteko. Baita enplegua mantentzeko ere, eta zergatik ez, kalitatezko enplegua hedatzeko. Kontu horiek analisi ekonomiko konbentzionaletik kanpo uzten dira, baina ekarpen handia egiten diote gizartearen ongizateari, gehiengoa langile garelako. ●

Basakeriaz



PAULA ESTÉVEZ

KATIXA DOLHARE-ZALDUNBIDE
LITERATUR ZALEA

Bizitzaren sail guzietan sartua da bortizkeria. Bihozgabeki uzten dira migratzaileak uretan itotzen. Estatu mailako eskuindarrek ezkertiarrak "barbaroak" deitzen dituzte eta zibilizazioa errekaratuko dutela oihukatzen dute. Eta gure herrietako plazetaraino eta etxeetako intimitateraino heldua da basakeria.

Joan den ekainaren 22an, Baigorriko irakurle taldeko kideok plazer handirekin egin dugu solas Maddi Ane Txoperenarekin. Gonbidatua genuen Ortzaizeko Menta liburu saltegira *Ene baitan bizi da* (2020) bere lehen eleberria aipatzeko, eta *Ez erran inori* (2022) bigarrenaren dasta ukaiteko. Bi kontaketek tabu bana urratzea dute helburu: batak, familien baitako oroitzapen intimoen transmisio eskasa aztertzen du; besteak, sexu erasoa jasan duen pertsonaiaren barne altxatzea du aipagai. *Ene baitan bizi da* obran, idazle gazteak dohaintsuki agerrarazi du belaunaldi gazteak harreman gosez daudela aitzinekoei begira. *Ez erran inori* liburuan, berriz, jendartean orokorrean, eta euskaldunean bereziki dagoen gai ezkutua ezarri du agerian, sexu abusuak badirela gure gizartean besteetan bezala.

Maddi Ane Txoperenarekin mintzatu arau, gutariko zenbaitzuk gogoan genuen ekainaren 10ean iragan beste bilkura bat Baigorrin, Basaizeak eta medikuntza zentroak antolaturik, Erran eta Bizi elkartearekin, besteetan gero eta gehiago gertatzen diren eraso sexualei buruz. Hizlariak mediku berezituak ziren: argi eta garbi gomendatu dute sekula ez bakarrik ibiltzea besta denboran, prebentzio kanpainek, zigorrek, eta menturaz heziketa metodo berriek ondorio nabarmenak eragin artean. Gaiaz doi bat aparte, Erran eta Biziko sendagileek aitortu digute ere bai eraso sexualak herriko besteetan baino ugariago etxeetan gertatzen direla: hain zuzen ere, intzestu kasu asko dela froga dezakete mediku horiek, hain idiliko dirudien Ipar Euskal Herri barnealde honetan.

Ondorioz, ingurumen hurbila urrunagokoa bezain izugarria ikus daiteke. Non aurkitu, bada, pozteko gairik? XIX. mende erditsutan, Charles Baudelaire olerkari etsituak horrelako oharrak egin zituen jadanik, eta etorkizun iluna irudikatu: "Mundua bukatuko da. [...] Ez dut erraten [...] estatu basara itzuliko garela, eta joanen garela, gure zibilizazioaren hondar belartsuen artetik, bazkaren bila, arma eskuan. Ez; abentura horiek oraino suposa lezakete bizitzeko indarra, lehen aroen oihartzun. [...] ez da bereziki erakunde politikoen bidez agertuko hondoratze orokorra [...]. Bihotzak zital bihurtzearen bidez izanen da" (*Fusées*, 1867).

Mende bat berantago, haatik, *City* zientzia-fikziozko obra bikainean, Clifford D. Simakek asmatu zuen gizakia Jupiter planetara joanen zela ihes, han izaki berria bilakatuz, argiago eta erabat konplitua. Lurra zakurrek, robotek eta xinaurriek beteko zutela. Lehenagoko giza-zibilizaziotik errealitate berrira transmitituko zen gauza bakarra izanen zela debeku hau: bortitz eta hiltzaile izatea.

Etorkizun urrunarendako, edozoin irudikapen posible da; zergatik ez gizakiaren akabantza amestu, modu ezkorrean Baudelairek bezala, ala baikorrean, Simakek egin legez, basakeriaren desagertzea hartuz ideal absolututzat. Baina ez gara horretan. Miren Amurizak *Basa* eleberrian erakartzen duen unibertso salbaitik beste batera pasatzen ari gara, oraindik salbaiagoa. Presazkoa dena da goxotasuna eta jendetasuna iraunaraztea, biolentzia guziak salatuz. ●

Gizon gazte letrazaurituak

BEÑAT MUGURUZA
IRAKASLEA ETA IKERTZAILEA

Emakumezkoak zientziara erakartzeko hamaika ekimen antolatzen dira han-hemen, eskolako lehen urteetatik hasita. Ikusgarritasuna ematen zaie orain arte ikusezin izan ditugunei, ez dadin Marie Curie izan ezagutzen dugun izen bakarra. Eta ze ondo, pentsatzen dut, garrantzitsua da emakumeak zientzian ere egotea.

Nago, ordea, zerbait egiten hasi beharko dugula gizonezkoak letretara hurbiltzeko. Esaterako, ikusten ari gara emakumezko idazleen labealdi berriak. Eta batzuek lortu dituzte sariak, batzuek jaso dute aitortza –beste batzuek ez behar adina, segur aski–. Erresistentziak ere badaude, dudarik gabe, askotan erdi ezkutuan, eta batzuetan azaleratu ere egiten dira.

Konstatazio bat (edo bi): 35 urte bete berri ditut, eta oso, oso bakanak dira ni baino gizonezko idazle gazteagoak gurean. Eta balitz gizon-belaunaldi berriek pauso bat atzera egin dutela, beren mendetako pribilegioari uko egin diotela beste ahots batzuk gehiago entzun daitezen, idazten ari direla baina lagunen artean partekatzeko baino ez, bestelako pretentsio handirik gabe, edo beren gozamen pertsonal hutsagatik… pozez hartuko nuke. Uste dut, tamalez, beste zerbaiti erantzuten diola.

Irati Jiménezek *Begiak zabalduko zaizkizue* liburuan aitortu du lotsatzen dela idatzitako gauza batzuez, baina pozten dela ez zelako goizegi argitaratzen hasi. 28 urterekin kaleratu zuen fikziozko lehen liburua! Egia esan, niri pena pixka bat ematen dit 25 urteko gizon batek burutan duena eta paper zurian etzanarazitakoa apenas irakurri ahal izateak. Gehiago kezkatzen nau gizon gazteen artean erreferenterik ez egoteak ume eta nerabeentzat. Baina benetan arduratzen nauena da gizon gazteek kasik ez izatea idazteko grinarik. Eta horrek zer ezkutatzen duen atzean. Izan ere, idazlea batez ere irakurle den –edo behar lukeen– neurrian, susmoa dut bakanak direla halaber gizon gazte letrazaurituak –edo lepoletzaileak, nahiago bada–. Batek pentsa lezake literaturak ez dituela erakartzen. Gauza garrantzitsuagotan egongo dira, segur aski. Eta testu honek ez du izan nahi gizon gazte horiei egindako kritika, inola ere.

Maialen Lujanbiok etxeko lanen banaketari buruzko irrati-zutabe gordin batean honako hau zioen: “Neskek etxeko lanen ardura hori utzi egin dute, zorionez; neskek utzi egin dute eta mutilek ez dute hartu”. Kasu honetan emakumeek hartu dute luma, edo teklatua, zorionez, baina zoritxarrez gizonezkoek utzi egin dute. ●

Zerk egiten dituen berezi herriko jaiak

LAURA MINTEGI LAKARRA
IDAZLEA

Transgresioarekin eta askatasunarekin identifikatzeak egiten ditu berezi norberaren herriko jaiak. Jaiak haur modura bizi ondoren, gurasoen eskutik helduta eta egun-argiz, garai batean, nerabezaroan, autonomoki eta iluntzean bizitzera pasatzen garenean, gure buruaren jabe sentitzen gara lehenengoz, adinez nagusi, nahiz eta oraindik urrun egon 18 urteetatik.

Helduen tutoretza barik, gauez kudeatu dezakegu denbora lehenengoz, kideekin beste modu batera erlazionatu, arauak eta ordutegi-mugak hautsi, lehenengo musuak bizi, esperientzia sexuala atzeman ala irudikatu, alkoholaren eta drogaren gehiegikeriak probatu. Deskontrolaren xarma da, xarma eta bertigoa aldi berean.

Gauza gutxi dira erakargarriagoak transgresioa eta askatasuna baino, zazpi egunez bada ere. Jaiak bizia dira, alaitasuna, bizipoza, baikortasun gorpuztua, oparia, beharrizana, kimika, magia, kaosa, eskuzabaltasuna, alde onarekiko konexioa.

Hori guztia dira sanferminak niretzat, nahiz eta lehenengoak nerabezaroan bizi izan.

Edo horrexegatik hain zuzen. Aurtengoan bai! ●

Mugak eta sistemak

IÑAKI BARCENA HINOJAL
EKOPOL ETA EKOLOGISTAK MARTXAN-EKO KIDEA

Duela 50 urte, 1972an, Massachusets Institute of Technology-ko 17 zientzialarik *Hazkundearen mugak* izeneko txostena prestatu zuten Erromako Klubaren enkarguz. Txostenaren ondorioa honako hau izan zen: munduko populazioaren garaiko hazkundea, industrializazioa, kutsadura, elikagaien ekoizpena eta baliabide naturalen ustiapena aldaketarik gabe mantenduz gero, Lurraren hazkundearen muga absolutuetara iritsiko zen mende batean, 2070ean. Argitaratzean kritika gogorrak jaso zituen zientzialari zein hedabideen aldetik. Oso sinplea eta malthusiarra zela leporatu zioten. Aldiz, gaurko krisi ekosozialaren mugarri zientifiko ukaezin bihurtu zaigu. Ikerketa, World3 programaren simulazio informatikoa zen. Eta tesi nagusia, "planeta handi baina mugatu batean, hazkunde esponentzialeko dinamikak (biztanleria eta produkzioa) ez direla iraunkorrak, jasangarriak ere ez". Hots, planetak mugak jartzen dizkio hazkundeari, baliabide mineralak berriztaezinak dira, lur langarriak finituak, eta ekosistemak giza zereginaren ondoriozko kutsadura xurgatzeko duen gaitasuna mugatua da ere. Entropia eta exergiaren legeak onar ditzagun.

> Sistemetan pentsatzea konponbide proaktibo eta eraginkorrak aurkitzeko lehen urratsa dugu

Donella Meadows ingurumen-zientzialaria izan zen *Hazkundearen mugak* txostenaren zuzendaria, eta bere heriotzara arte (2001ean) gure zibilizazioaren etengabeko hazkundearen mitoa borrokatu zuen. Emakume hori *Thinking in Systems* (Sistemetan Pentsatzen) liburuaren egilea da. Idazkiak XXI. mendeko bizitzarako funtsezkotzat jotzen diren pentsamendu sistemikoaren trebetasunak nola garatu erakusten digu.

Munduak dituen arazo nagusiak —gerrak, gosea, pobrezia eta ingurumen-degradazioa— sistemaren akatsak dira funtsean. Ez dira linealak. Ezin dira konpondu pieza bat besteengandik isolatuz. Ez dira sinpleak. Gero eta konplexuagoa den planeta batean bizi gara, gainezka eta beteta dagoena eta sistemetan pentsatzea konponbide proaktibo eta eraginkorrak aurkitzeko lehen urratsa dugu, Meadowsen aburuz.

Sistema konplexuak alde batera uzteak erantzukizunak saihestea ahalbidetzen du. Jorge Riechman eta enparauek diotenez, geure burua ispiluan ikusten ez dugun bitartean, gure errealitatea sistema artifizial gehiago eta gehiagorekin eraikitzen da, alderdien arteko deskonexioa behartuz, erregulazio politikoari eta kontrol sozialari oztopoak jarriz eta bizitza duinak ukatuz. Hori da, emakume zientzialari horrengandik ikasi duguna.

(Melillako mugan eraildakoak gogoratuz). ●

Bisitariak etxean bezala sentitzea gustatzen zaigu donostiarroi.

Bizi ezazu hiria bertako enpresen jarduera eta esperientzien eskutik.

Donostia
San Sebastián
sansebastianturismoa.eus

DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN
Turismoa

UEU: 50 urte

Karlos Santamariaren euskal unibertsitatearen bidean

Urrezko ezteietan da Udako Euskal Unibertsitatea (UEU). Euskaraz ariko den unibertsitatea helburu, 50 urte egin ditu traktore-lanean. Bidea berregin dugu, UEUren zuzendari Kepa Sarasola eta idazkari nagusi Ane Sarasua gidari harturik.

MIEL A. ELUSTONDO UEU

Esateko moduan, festarik festa dabil UEU komunitatea 50. urteurreneko ospakizunen karietara. Dakigunez, nahi beste dira ezer zelebratzeko formulak, eta Udako Euskal Unibertsitateak berea erabaki du, UEUko idazkari nagusi Ane Sarasuak esan digunez: "Urteurrena diseinatzen hasi ginenean, hiru helburu genituen. Lehena, ospatzea; gainera, pandemiatik gentozen, eta presentziala nahi genuen ospakizuna. Bigarrena, gure proiektua hobeto ezagutaraztea eta, horretarako, UEUren ospakizuna hiriburu guztietara eramatea, ezagutzaz eta jakintzaz baliatuz, baina kontrapuntu ludiko eta guzti, hau da, ikerlari gazteen mikrohitzaldiak eginez eta, horrekin batera, mokadua eta musika ere eskainiz". Ekainaren hasieran eginak dituzte "UEUfestak" Baionan, Eibarren –bertan baitu ikastetxea UEUk–, Donostian, Iruñean, Gasteizen eta Bilbon, belaunaldi berriko ikerlariekin batera "bizi osoan lagun izan ditugun UEUkideak ere bilduz", Kepa Sarasola UEUko zuzendariaren esanetan. 50. urteurreneko ikastaroen irekiera-ekitaldia Baionan eginik –hantxe egin baitzituen lehen urratsak UEUk–, bigarren ekitaldi instituzionala, akademikoa, Bilbon egingo dute, irailaren 21ean, Kafe Antzokian, Euskal Herriko unibertsitateetako eta gizarteko ordezkariak bilduz eta, bidenabar, webgune berritua eta ikus-entzunezko korporatibo berria ere aurkeztuz. Zuzendariaren mezua: "Gure proiektua ez dela bukatu adieraziko diegu batzuei eta besteei, Euskal unibertsitatea egin nahi dugula, komunikazio-hizkuntzatzat euskara hartuko duen unibertsitatea sortu", horixe baita UEUren helburua sortze beretik ere.

1972, KARLOS SANTAMARIA

Historia eginez, 1970-72an Euskal asteak antolatu ziren Baionako Euskal Erakustokian. 1972ko ekitaldian Karlos Santamariak Euskal Unibertsitatea sortzeko premiaz jardun zuen eta, ondorioz, Euskaldunen Biltzarra, Ikas eta Fededunak elkarteek 1973ko udan UEU antolatuko zutela erabaki zuten. Abuztuaren 29tik irailaren 8ra egin zen unibertsitate hura, Euskaltzaindiaren babespean. Eta, honetan, Kepa Sarasolak irakurrarazi dizkigu Santamariak garaitsuan egindako hitzak: "Bi eginkizun diferente dago uste dudanez, gure Unibertsitatearen alorrean. Batari Euskal Unibertsitatea dei lekioke; besteari, berriz, Euskal Herriko Unibertsitate izena emango nioke nik, bion arteko desberdintasuna ongi azaltzeko. [...] Euskal Herrian dauden eta egongo diren unibertsitate eta sasi-unibertsitate multzoari Euskal Herriko Uni-

JARDUERA PEDAGOGIKOAK

Beste modu batera ere ikas daitekeela erakutsi zuen UEUk hasiera-hasieratik. ARGIAren artxiboan aurkitu dugu 1978an egindako jarduera pedagogikoen argazki hau. Orduko bizitasuna ez du galdu UEUk ondorengo urteetan.

bertsitatea izena emango diogu. Aldiz, uste honek utopia itxura badu ere, nire terminologiaz Euskal Unibertsitatea euskal kultura eta hizkuntzaren 'alma mater' izan beharko litzatekeen euskarazko unibertsitatea da". Santamariaren hitzak, hortaz, *Jakin* aldizkariak 1977an jasoak.

UEUren lehenengo bi ekitaldiak Donibane Lohizuneko Maurice Ravel ikastegian egin ziren; ondoko biak Uztaritzeko apaizgaitegian. 1977an, berriz, Iruñean egin zen UEU, Martin Orbe gidari zela: "Nik Manex Goienetxe aipatu behar dut. Ohartu zen, ez bera bakarrik, ikasle gehienak Hegoaldekoak zirela, dirua ere alderdi honetan biltzen zela, hona behar zuela UEUk, eta, hona, Nafarroara. Halaxe etorri ziren Iruñeko Larraonako urteak. Niri dagokidanez, Anton Artiñanok eman zuen nire izena UEU zuzentzeko". Kepa Sarasolak, berriz, Manex Goienetxerekin batera, Piarres Xarriton, Jean Haritxelar, Karlos Santamaria, Joxe Ramon Etxebarria eta Txillardegiren izenak ere aipura ekarri ditu: "Gizonezkoak denak, baina laster dira hor Maria Jesus Esteban eta Anjeles Iztueta matematikariak, edota Edurne Alegria eta Mari Karmen Meñika, adibidez, lan gaitza egindakoak, eta nahitaez aipatu beharrekoak". Iruñeko urteen garaia etorri zen…

IRUÑEKO LARRAONA

Ipar Euskal Herrian ezarri ziren euskal unibertsitatera bideko UEUren zimentarriak. Franco diktadorea 1975eko hazilean hilik, handik bi urtera egin zen Iruñeko lehen saioa, Sarasolak adierazi digunez: "Ordurako, ikastolen mugimendua pil-pilean zegoen, euskararen aldeko mugimendua ere indartsu, euskara batua ere sendotzen, nahiz plazara eraman behar zen. Kualitatiboki, Iparraldekoa garrantzizkoa izan zen. Kuantitatiboki, UEU Iruñean egiteak jauzia ekarri zuen: 500 pertsona ere bildu ziren hasierako garaian Larraonan. Azpiegitura hobezina zen: barnetegia zen nahi zuenarentzat, jantoki eta logelak, saio osagarriak eta gainerakoak". Arrakasta handiko urteak izan ziren, eta etorkizun oparoaren hasmenta: "1977an, ondoko 25 urterako azpiegitura finkatu zen Larraonan. Baina uztaileko hamabostaldian ez ezik, urte osoan zehar egiten zen lan, eta Iruñean, berriz, aurkezten. Izozmendiaren punta zen Larraona". Ane Sarasuak azpimarratu du orduantxe egituratu zirela sailak, lotu zitzaizkiola batzuk eta besteak jakintza-arloen dizi-plinartekotasunari, ikasle-irakasleen arteko horizontalitateari. 27 jakintza-sail ere izan ziren noizbait, nahiz oraingo egunean denak ez diren indarrean.

> **"1977an, ondoko 25 urterako azpiegitura finkatu zen Larraonan"**
>
> **Kepa Sarasola**

1985, UEU URTE OSOAN

Karlos Santamariaren hitzak gogora ekarriz, "Euskal Unibertsitatea euskal kultura eta hizkuntzaren 'alma mater' izan beharko litzatekeen euskarazko unibertsitatea da", eta, jakina, da "urte osokoa, ez udakoa bakarrik", Sarasolaren arabera. Berak izozmendiaren puntatzat du sasoi bateko udako hamabostaldia, izan Baionakoa, izan Iruñekoa. Ane Sarasua idazkari nagusiarena da egia: "Ikasle-irakasle haiek militanteak ziren, gazteak, eta laster hasi ziren EHUn plaza lortzen, EHUko euskara planetan eragiten, IXA taldea eta gisakoak osatzen… Alegia, Larraonan xurgatutakoa unibertsitate ofizialetan gauzatzen hasi ziren, karrerak euskaraz egon zitezen lanean. Udakoa ez zuten nahikoa", eta, horrela, 1985ean, urtean zehar hitzaldi eta jardunaldiak antolatzeari ekin zion UEUk.

Handik urtebetera, izaera juridikoa hartu zuen UEUk, bi langile zituela: Mari Karmen Meñika idazkari nagusi, eta Nekane Intxaurtza, berriz, argitalpengintzaz arduradun zela.

Garaiari buruzko oharkizunak egin nahi izan ditu Sarasolak, hasierako belaunaldia miragarritzat joz. "Jende adimen handikoa izan baitzen, beste hizkuntza batzuek asmatu ez dutena asmatu zuten haiek, asmatu zuen euskarak, Jose Ramon Etxebarria, Joseba Intxausti, Andoni Sagarna, Joxe Azurmendiren eta beste askoren eskutik… Gairik konplexuenak ere euskaraz komunikatzeko gauza izan ziren, haiena ez zen itzultzea bakarrik –hortxe zen oraindik gerraurreko garbizaletasunaren eskarmentua–, konturatuta zeuden euskara komunikatiboa behar zela, eta gauzatu zuten". Ez zen halabeharrez izan, ez zoriaren emaitza: "Gertatu behar zelako gertatu zela ematen du, baina ez, beste zenbait herrialdetan ez da halakorik gertatu. Euskararen historian, XIX. mendean-eta, gaiak euskaraz lantzeko saiakerak egin dira, baina arrakastarik gabe, 70-80ko hamarkadetara arte". Horretan, baitezpadakoa, Sarasolaren iritziko, euskal unibertsitatearen asmora bildutako jendea.

1985ean kongresua egin zuen UEUk, eta, besteak beste, bazkidetza figura onartu zuen, oinarri sozial zabala eta proiektuarekiko askoren atxikimendu handia baliatuz.

2000. URTEA MUGARRI

Ane Sarasua 1997an hasi zen lanean UEUn, eta bertatik bertara bizi izan ditu harrezkerokoak. Mugarritzat du 2000. urtea: "Larraonako garaia atzean utzi behar genuela ohartu ginen, jendea lotan ez geratzen hasi zen, autobusean joan-etorriak egiten… eta, hori, bestalde, baliabideak handitzearekin batera

> **Aitortzaz**
>
> "Euskal munduaren aitortza dugu, bai, ARGIAren aitortza, *Jakin*-ena, euskarazko hedabideena. Erdal munduak ez gaitu ikusten. Oraintxe jasotzen ari garen oihartzunek horixe erakusten digute. Euskal komunitatearen baitan UEU oso maitatua da, eta erreferentzia ere bai. Proiektu batean sartzen bagara, gure atzetik datoz 1.300 bazkideak eta inguruan mugitzen diren beste 10.000k. Esparru horretan gure iritzia oso inportantea da. EHU sortu zenean, esaten zuten ezinezkoa zela euskara unibertsitatean modu praktikoan sartzea, baina sartu da gradu guztietan, UEUren lanari esker neurri batean, giro sortzailea dugulako, militantzia handia, jende oso trebea"
>
> **Kepa Sarasola**
> UEUko zuzendaria

KARLOS SANTAMARIA

UEU sortu berritan, bi kontzeptu desberdindu zituen irakasle donostiarrak: Euskal Herriko Unibertsitatea gauza bat zen, Euskal Unibertsitatea beste bat.

etorri zen: 2000an, bi lanpostu izatetik, bost izatera iragan ginen; Bizkaiko aldundiak babes eta aitortza instituzionala eskaini zizkigun, eta egoitza jabetzan eman Bilbon; argitaletxea Nafarroan dugu beti; Baionan, Ipar Euskal Herriko ordezkaritza; halaber, Eibarko udalak Markeskoa jauregia lagapenean utzi zigun". Bertan dira gaur egun UEUren egoitza eta ikastetxe nagusiak. XVI. mendeko jauregia, Markeskoa, ondare kualifikazioaren jabe, eraberrituta baina hutsik zegoen garai hartan, bizia-raziko zuen inoren zain. Ane Sarasuak dioena: "900 metro koadro ziren. 2000. urtean, hitzarmena sinatu genuen, 20 urterako, beste bost urte gehiagorako, berriz, oraindik orain". Haize alde ekin zioten: "Bizkaiko egoitza jabetzan, eta Eibarko 900 metro koadro... ez da Larraona, baina erakusleiho indartsua da. Geografikoki ere ongi kokatuta Eibar, udakotik irteten hasi ginen, hitzaldi eta jardunaldiak ez ezik, etengabeko prestakuntzari lotu gintzaizkion", esan nahi baita, bizialdi osoko ikaskuntza prozesuari.

"30 urte inguru dituzten irakasle eta ikerlariek beste belaunaldi miragarri bat eratuko dute"

Kepa Sarasola

Markeskoa egoitzak hamaika aukera eman zizkion UEUri. Jauregiko 900 metro koadrotan areto nagusia, ikasgelak, informatika-gela, bulegoak... dituzte, eta laster izan zituzten langile behar handiagoak ere: informatikaria, komunikazio-arduraduna, Inguma datu-basea elikatzeko dokumentalista, eredu pedagogikoa lantzeko aholkularia... Ane Sarasuaren sintesia: "2000-2010eko hamarkadan oraingo 21 lanpostuen %75 osatu genuen. Pertsona

ANE SARASUA ETA KEPA SARASOLA. UEUko idazkari nagusiaren eta zuzendariaren eskutik eman diogu errepasoa azken 50 urteetako ibilbideari.

IKERGAZTE. 2019an Baionako Kalostrapen UEUren eskutik bildutako ikerlarien afaria. Belaunaldi berriak indartsu datozela uste du Kepa Sarasolak.

MENDE ERDIA OSPATZEN. UEUk Eibarren 50. urteurrenaren karietara antolatutako ospakizuna.

LARRAONAN EMANDAKO JAUZIA. UEU Iruñera aldatu zenean jauzi kualitatibo eta kuantitatiboa eman zuen. 500 pertsona bildu ziren hasierako urteetako ikastaroetan.

Zeruko Argia 675, 1976-02-15.

ORRIALDE HAUETAN. Euskal unibertsitatearen premiari buruzko eztabaidak lekua izan du hedabide honetan. Ezkerrean Antton Olariagak *Zeruko Argia*-n publikatutako zinta. Eskuinean, 1976an gaiari emandako azala.

batekin etorri ginen Markeskora, eta hamasei ari gara orain Eibarren. Hamarkada guztiz emankorra eta baliagarria izan zen". 2011n esparru-hitzarmena sinatu zuten EHUk eta UEUk, kongresu zientifikoak antolatzeko, euskal komunitate zientifikoaren datu-baseak partekatzeko, euskarazko doktorego tesien corpusa elkarrekin elikatzeko... Bestalde, graduondokoak sustatzen ere hasi zen UEU, eta 20 urteko bidean, 2019an, zentro atxikitzat onartu zuen EHUk UEUren Goimailako Online Institutua (GOI).

GEROA, BELAUNALDI BERRIAK

UEU unibertsitate-gaiak euskaraz lantzeko agente oso dinamikoa delakoan da Kepa Sarasola: "Katalizatzaile gara, traktore, inurri-lana egiten ari gara euskara unibertsitateko esparru guztietara iristeko", noski, beste unibertsitateekin elkarlanean. Belaunaldi berriei begira jarri eta mintzatu zaigu: "30 urte inguru dituzten irakasle eta ikerlariek beste belaunaldi miragarri bat eratuko dute, potentzialitate handia daukate, inoizko irakasle, ikerlari euskaldun hoberenak ditugu, gure lana da orain haiei utopia berriak eskaintzea, Koldo Mitxelenarentzat ezinezko zirudiena, gauzatu dugu: unibertsitateko titulazioak euskaraz eginez, posible dela erakutsiz". Eta utopiarik utopia, "orain, berriz, proiektua da online unibertsitate bat dena etxetik euskaraz ikasi ahal izateko. Horrelakorik ez dago, eta horixe da gure hurrengo urratsa. Unibertsitateak duen hutsune handietako bat da, guk bete dezakeguna, bizialdi osoko ikaskuntzaren barruan, inori sufriarazi gabe, eroso ikasteko bidea eskainiz, bigarren titulazioren baten jabe egiteko aukera emanez... Egina dute Katalunian, Unibertsitate Irekiaren bitartez (UOC), eta hortik ere jo nahi dugu UEUn. Hogei urte daramatzagu eredu horren atzetik", erakundeetan zenbait ahotsek eredu hori biderazaila dela esaten zuten arren, egindako prospekzioetan posible dela ikusi dute UEUn.

Zerutik jakina da euskara gogor ari dela unibertsitate ofizialetan ere, eta aurrera begira ari da UEU, bateko eta besteko unibertsitateekin harremanetan, "unibertsitateen arteko elkarlanik gabe ezingo genuke-eta gure helbururik bete, hau da, Karlos Santamariaren Euskal unibertsitatea", esan digu Kepa Sarasolak. ●

“Dekolonialitateari buruzko eztabaida pil-pilean dagoenean gure zilborrari begirako diskurtsoak gailendu dira hemen”

Axier Lopez

Gure heroiak liburua idatzi du Lopezek Elkanoren mundu biraren bosgarren mendeurrenaren aitzakian, eta ARGIAk argitaratuko du, irailean. Euskal Herriko kaleetan kolonialismoarekin eta esklabotzarekin lotura duten pertsonaiek duten presentzia aztertu du, nazioartean sinbolo horien inguruan dagoen eztabaida Euskal Herrian ere beharrezkoa dela iritzita. Honela dio kontrazalean: “Hau ez da gure buruen larrutzea. Gu ez geunden han. Ordukoaz guk ez dugu ardurarik. Baina iraganean gertatutakoa hemen eta orain ospatzen dugunean, zuritzen dugunean, hango protagonistak leku pribilegiatuetan mantentzen ditugunean, orduan bai, ardura gurea da. Gu hemen gaudelako”.

PERU IPARRAGIRRE DANI BLANCO

Mundu Biraren mendeurrena dela-eta Elkanoren izena askotan ikusten ari gara azken urtean. Berari buruzko beste liburu bat?

Hiru urteko ospakizunak izan dira, eta hiru urte hauetan denetarik ikusi dugu. Ospakizun ofizialak nola antolatu dituzten, ze diskurtso eratu diren, diskurtso kritikoak ere nola agertu diren, eta horiei erantzunez nola beste batzuk ere hasi diren diskurtsoa moldatzen... Hori Euskal Herrian edo, hobe esanda, Euskal Erdian, hau batez ere Gipuzkoan eta pixka bat Bizkaian fokalizatuta baitago. Bitartean, nazioartean justu hiru urte hauetan gaia beste era batera landu dute, gertakari zatar batetik abiatuta. Polizia batek erabaki zuen beste pertsona bat bere belaunarekin itotzea, eta horrek askatu zuen hasieran AEBetan eta ondoren mundu anglosaxoian eta Hego Amerikan hemen piztu ez den eztabaida bat.

Historiari eta sinboloei erreparatu diezu.

Elkanoren eta bere Mundu Biraren historiaz aritzen naiz tarte batean, baina kazetaritzatik ere badauka, eta gehiena diskurtsoaren ingurukoa da. Nola munduan Black Lives Matter mugimenduak hauspotutako dekolonialitatearen inguruko eztabaida pil-pilean izan den urteotan hemen gure zilborrari begirako diskurtsoak gailendu diren, edo nola izan diren horiek diskurtso ofizialak, eta horretarako oso adibide ona da Elkano.

Euskal Herrian kolonialismoarekin edo esklabotzarekin, konkistarekin, arpilatzearekin lotura zuzena izan zuten edo horretan protagonista izan ziren euskal herritar asko eta asko daude, eta horien artean askoren izenak gure kale eta plazetan dauzkagu, baita haien gorputzak plazetako estatuetan ere, edo herriko seme kuttunen zerrendetan agertzen dira. Elkano tanta bat da itsaso zabalago batean. Hor dago nire ustez gakoa.

Zein da panorama?
Bilbon, adibidez, 800 inguru kale eta plaza izen daude, eta errepaso azkar bat eginda eta azterketa sakonik gabe jabetuko zara lehen begiratuan apaiz, misiolari, santu, aita santu, birjina, markes, jauntxo, aberats, bankari, politikariak... direla. Alegia, garai bateko gizon zurien elite militar, politiko eta kulturalaren argazki oso zehatza dela. Hori errepikatzen da hiri eta herri guztietan. Ipar Euskal Herrian beste erreferentzia historiko batzuekin, Frantziako Inperioarekin eta erlijioarekin lotutakoak, esaterako. Hego Euskal Herrian, gehiago sakonduz gero ikusiko duzu horietako asko data jakin batzuetan ezarritakoak direla. Lehen momentua da Espainiako Inperioaren koloniak independentzia lortzen hasten direnean, estatua gehienak, adibidez, garai hartakoak dira: Legazpiren omenezkoa, Okendorena, Urdanetarena... Inperioa beheraka doanean, orduan hauspotzen dira figura horiek, handitasun inperial hori indartzeko. Bigarrena frankismoa da, haientzako ere inperioaren loria hori oso baliagarria izan baitzitzaien. Getariako udaletxearen aurrean dagoen Elkanoren estatua jartzea izan zen lehen udalbatza frankistaren lehen erabakia: Francori telegrama bidaltzea altxamenduaren urteurrena ospatzeko eta horrekin batera Elkanoren estatua jartzea udaletxearen aurrean.

Saiatu naiz kolonialismoarekin edo esklabotzarekin lotura duten estatua eta kale-izenena anekdotikoa ez dela erakusten.

Batzuek figura horiek erreklamatzen dituzte, nola kudeatzen da hori?
Josep Fontana historialari katalanak esaten zuen historiaren funtzioa ez dela iraganeko ustezko egia finkoak aurkitzea eta zabaltzea, baizik eta unean uneko edo garaian garaiko gizartearen premiekin bat datorren kontzientzia kolektiboa sortzen laguntzea. Etorkizunari begirako ariketa bat da historia hemen eta orain erabiltzea, eta historiaz ari garenean, orduan, subjektibotasunaz ari gara. Ez dago kontakizun bat eta bakarra orain dela 500 urte gertatu zenaren inguruan, orain dela hamar urtera arte egon den gatazka armatuaz ez dagoen bezalaxe. Kontua da kontakizun edo ikuspegi horien arabera ze etorkizun proiektatu nahi dugun. Kaleetan eta plazetan dauden gizon horiek erreferenteak izan daitezke batzuentzat, kontua da espazio publikoan daukagun argazki orokorra dela erabat klasista, ikuspegi burgesaren araberakoa, emakumeak ezkutatzen dituena eta oso garai ilunetan protagonista izan zirenen inguruan inolako ikuspegi kritikorik ez duena.

Espazio publikoan dauden erreferenteak dira.
Esklabistek Euskal Herrian dauzkaten kaleak eta estatuak urte luzez egon dira hor inolako kontestualizaziorik gabe, naturaltasun osoz. Agian gizon horietako askok eskolak sortu zituzten pertsonak merkantzia gisa salerostearekin irabazitako diruarekin: Portugaleten, Santurtzin, Donostian, Laudion edo Gasteizen diru hori bertakoen onurarako izan ziren azpiegiturak sortzeko baliatu zuten. Ikuspegi horretatik begiratu nahi badiozu historiari agian erreferente moduan har ditzakezu. Baina hori berriro gerta ez dadin eta justizia eta berdintasuna hartzen baditugu oinarri gisa,

pertsonaia horiek ez dute kabidarik irudikatzen dugun munduan.

Orain, adibidez, frankismo garaiko gurutze batzuk bota dituzte gazte batzuek, horiek ez dira ari iragana ezabatu nahian edo iragana edertu nahian, hori egin dute irudikatzen duten etorkizunean gurutze horiek ordezten dituzten balioek eta gizarte ereduak ez dutelako lekurik. Eztabaida politikoa da, horregatik, liburuaren zati handi bat espazio publikoan duten leku pribilegiatu hori ezbaian edo agerian jartzeko baliatu dut.

Beti irudikatzen dugu espazio publikoa hemen jaio, hezi eta paisaia hori naturaltasunez ikusten dutenen begietatik, baina kolonialismoaren edo inperialismoaren biktima izan diren lurraldeetatik datozenek zer pentsatu behar dute, hemen bizi eta gu bezain euskal herritar diren horiek guztiek? Horregatik, Euskal Herriko Emakume Migratu eta Arrazializatuen Sareko kideei hitza eman nahi izan diegu liburuan. Hitzostean oso garbi eta gordintasun osoz esaten dute Elkano erreferente nazionaltzat hartzea beraientzat, emakume migratu eta arrazializatu gisa, euskal gizarte honetan pentsamendu kolonialaren presentziaren adibide bat gehiago dela.

Normalean ez zaio erreparatzen ikuspegi kolonial horri, zergatik ez da zalantzan jartzen?

Batetik, ezjakintasuna aipatu behar da, nigandik hasita. Agian ez diogu garrantziarik ematen, edo "beti" egon diren estatua, plaza edo kale horiek hor egon dira eta kito, eta ez diegu buelta handirik ematen, baina nahikoa da plaza eta estatua horietan dauden pertsonen inguruan zerbait aipatzea, haien defentsan ateratzeko norbait.

Adibidez, duela hilabete batzuk obretan hasi ziren Zumarragan Legazpiren estatua dagoen plazan, udaletxe aurrean, eta estatua lekualdatzeko aukera jarri zuten mahai gainean; hor erdian enbarazu egiten duelako, ez Filipinen konkistatzailea izan zelako. Alderdi politikoei horren inguruko iritzia eskatu zieten, eta inongo eztabaidarik sortu gabe, polemikarik tartean egon gabe, alkateak esan zuen Legazpi ez zela kolonizatzailea izan, "konkistatzailea" baizik, ez zuela indarkeriarik erabili, eta zumarragar guztiek harro egon beharko luketela herrian horrelako pertsonaia bat izateagatik, Getarian Elkano, Ordizian Urdaneta, Donostian Okendo eta Pasaian Blas de Lezo daukaten bezalaxe. Bat-batean sortzen da diskurtso bat inon agertzen ez dena, guztiz eurozentrista, kolonialismoaren ondorioak ia-ia anekdotatzat uzten dituena. Orain dela 500 urteko kontuak direnez ematen du edozerk balio duela azken buruan konkista edo inperialismoa zuritzen dituen mezua justifikatzeko.

Behean eta ezkerrean daudenak goikoen sinboloen aurka oldartu dira mundu zabalean, 2020ko maiatzaren 25ean AEBetako polizia batek gizon beltz bat itota hil zuenetik. Chris Juhn-en irudian, AEBetan eraitsi dituzten Cristobal Colonen hamaika estatuetako bat.

> "Euskal Herriko Emakume Migratu eta Arrazializatuen Sareko kideek oso garbi esaten dute Elkano erreferente nazionaltzat hartzea pentsamendu kolonialaren presentziaren adibidea dela"

Elkanorekin ere berdin?

Eztabaida horrek beste maila bat hartzen du hau bezalako urteurrenetan. Elkanoren kasuan, euskal herritar guzion enbaxadore bilakatu nahi dute, nazioartera begira ere. Munduari bira ematen lehenengoa euskalduna izateak puntuak ematen ditu nazioarteko lehia horretan, eta hori ere lotuta dago turismoarekin eta herrialdeen balizko prestigioaren lehiarekin. Espainiarrek zer aldarrikatzen dute? Orain arte aldarrikatu dutena, hau da, euskaldun batek –*un vasco*–, hori ere asko azpimarratzen baitute, Espainiaren Inperio globalaren eraikuntzan inoiz egindako balentriarik handiena izan zela, edo Odon Elorzak Espainiako Kongresuan esan zuen bezala: "Baliatu beharko genuke mendeurren hau euskal herritarrek Espainiako proiektuaren eraikuntzan izan duten protagonismo zuzen eta argia argi uzteko".

Euskal Herrian ikuspegi nazionalista espainiar hori alboratu eta deskafeinatu eta aurpegi atseginagoko diskurtso bat sortu dute. Espainiarrek esaten badute haiek izan zirela onenak eta munduari bira ematen lehenak, hemen esaten da euskaldunok izan ginela munduari bira ematen lehenak, Euskal Herrian egiten ziren itsasontziak munduko onenak zirela, euskal herriko itsasgizonak garai hartan munduko onenak zirela, eta abar. Gu, gu, eta gu, onenak, lehenak, handienak, azkarrenak, eta abar. Lehiakortasun hori hemen ere errepikatzen da, baina atseginagoak izan daitezkeen ustezko euskal herritarren balio kon-

partituen artean, eta horren inguruan barietate handia dago. Elkano humanista zela, errenazimentuarekin lotura zuela, desobedientea, besteak ez bezala kapitain demokrata zela... Behin bide hori hartuta Elkano da, Albaolako presidenteak dioen bezala, euskaldunok "odolean daramaguna", euskalduntasunaren adierazgarri gorena, bat-batean.

Modu kontzientean erabiltzen da figura hori diskurtso bat eraikitzeko. Nola irudikatu horrelako sinbolo eta erreferentzietan oinarrituta ez dagoen etorkizun bat?

Marka bat sortu dute, ekonomiarekin eta saltzearekin oso lotuta baitago, eta mito bat ere bai. Hori zilegia da, mundu osoan sortzen dira mitoak. Hemen ere, Nafoarroako konkistaren harira sortutako zenbait pertsonaia, gertakari eta abar hauspotu dira, estatua berreskuratu nahi dutenen aldetik erabilgarriak izan daitezkeenak, beste batzuk ez. Historiaren erabilera hala da, kontua da erabilera horren arabera ze balio ari zaren zabaltzen. Hor dago nire ustez eztabaida.

Liburu hau idaztea deseraikitze prozesu bat izan da. Independentista naiz, ezkerrekoa, edo behintzat hala daukat nire burua, eta proiektatzen den Euskal Herri hori eraikitzeko baliagarriak izan daitezkeen pasarte batzuk, halako epopeiak-eta, idealizatu izan ditut: "Euskaldunok garaitu genituen...". Euskaldunok, guk, ni han izango banintz bezala, Axier Lopez Torres Molina, orain dela 1300 urte, harriak botatzen Orreaga inguruan, edo espainolei aurre egin zieten nafar heroiko horiek edo ez dakit zer matxinadatan. Baina ezer ez da zuria ala beltza. Mugimendu Feministak horretan, nik uste, asmatu izan du: izan gaitezkeela zapalduak, eta zapaltzaileak, Euskal Herria egon daitekeela zapalduta, eta euskal herritar batzuk izan daitezkeela zapaltzaileak.

Mitoak sortzean, plaza erdian estatuak jartzen dituztenean, historia izozten dute, eta bakarrik erakutsi alde bat, gehienetan estatua jartzen duenaren interesekin bat egiten duena. Garrantzitsuena da eztabaida. Leku batzuetan heroi nazionala poeta bat da, eta bere estatua bat daukate plazan. Ez dakit estatuarik behar dugun, gure burua irudikatzeko. Argi daukadana da gerrarekin, sufrimenduarekin lotutako gizon armatu saldoa ez dela izan behar.

Orain ari gara "Gerrarik ez!" aldarrikatzen eta kaleak militarren izenez josita daude, eta euskal enbaxadore gisa nahi dugu Molukak konkistatzera armez inguratuta joan zenetako bat. Horretaz pentsatu beharko genuke. Ez da dena zuri ala beltz, baina badago mamia.

Liburua idatzi aurretik hainbat lekutan eman duzu *Ni ez naiz kolonialista, baina...* hitzaldia. Jendeak nola ikusten du auzi hau?

Eztabaidarik, polemikarik ez dagoenez, gai honek ez du jarraipenik izan. Erresuma Batuan, Laboristen esku zeuden 130 udalerrik erabaki zutenean kolonialismoarekin eta esklabismoarekin zerikusirik duten kale-izen, plaza, eraikin edo estatua oro aztertzea eta espazio publikotik kentzea, horrek esan nahi du atzetik zegoen herri mugimenduaren eztabaida maila eta bultzada sekulakoa zena, bestela ez ziren mugituko. Hemen ez da bakarrik eztabaidarik ez dagoela, baizik eta aurretik altareetan zeuden pertsonaia historiko batzuk are altare altuagoetara igo nahi direla, Elkano tarteko. Hitzaldietan, lehenengoa da harridura. Mugimendu feministaren gaia garrantzia osoarekin landu duen eragile bakarrenetariko bat, eta horretaz gehiago hitz egiten ari da. Elkanori Bira ekimena ere horretarako sortu zen, baina ez da bestelako eztabaidarik edo diskurtso egituraturik sustatu. Hori da giroa Espainiako Estatuan eta Ipar zein Hego Euskal Herrian. Kolonialismoarekin edo esklabotzarekin lotura izan duten euskal herritarrek gaur egun duten presentzia eta gorazarrea sakon aztertu beharko litzateke. Liburukoa lagin bat da, eztabaida piztu nahian egindakoa. Inork esklabistak enpresa-gizon bezala edo Elkano garai bateko euskal itsasgizonen trebeziaren ikurtzat ikusi nahi badu, behintzat ez dadila izan mahai gainean ikuspegi guztiak ez daudelako. ●

GURE HEROIAK

Ez zu eta ez ni ez gara kolonialista, inbaditzaile, konkistatzaile, ezta esklabista ere. Munduko beste muturreko indigena basatiak akabatu, gainerakoak Kristoren gurutzearen itzalpean "zibilizatu", eta beren lurrak eta ondasunak arpilatzea ez da egun norberarentzat aldarrikatzeko moduko zerbait.

Inork ez ditu bere egiten euskal herritar askok (ere) mende luzez egindako astakeria horiek. Baina konkistatzailea *esploratzaile*, kolonizatzailea *humanista* eta esklabista *enpresa-gizon* bilakatuz gero, orduan errazagoa da.

Hau ez da gure buruen larrutzea. Gu ez geunden han. Ordukoaz guk ez dugu ardurarik. Baina iraganean gertatutakoa hemen eta orain ospatzen dugunean, zuritzen dugunean, hango protagonistak leku pribilegiatuetan mantentzen ditugunean, kaleen izenetan eta plazetako eskulturetan, orduan bai, ardura gurea da. Gu hemen gaudelako.

Eskaerak: **azoka.argia.eus**
(+34) **943 37 15 45**

TERESA MALDONADO BARAHONA

"Egindako esaldi eta eslogan feministen gehiegizko erabilera bateraezina da pentsamendu kritikoarekin"

Teresa Maldonado Barahona FeministAlde!-ko militanteak eta Filosofia irakasleak *Hablemos claro* (Hitz egin dezagun argi) liburuan adierazi du bere kezka, egungo feministen lengoaiak darabiltzan gehiegizko neologismo, anglizismo, esaldi ulergaitz edota metaforen ingurukoa.

JUNE FERNÁNDEZ

Pikara magazine

Elkarrizketa hau Pikara Magazinek argitaratu du eta Creative Commons lizentziari esker ekarri dugu.

Teresa Maldonado Barahona (Bilbo, 1966) militante feminista da, eta ez aktibista. "Konnotazio ezberdinak dituzten terminoak dira. Militantziak berekin dakar antolakundearekiko konpromiso kolektiboa; aktibismoaren definizioa laxoagoa da, neure burua aktibista bezala izendatu dezaket sare sozialetan, eta gero gauzak egiteari utzi baldin eta gogo gehiago badaukat hondartzara joateko". Berak "eskola zaharreko" militantzia gauzatu du bizi osoan: Matarraskak emakume gazteen taldea sortu zutenetik gaur egungo FeministAlde!-ko parte hartzeraino, tartean Bizkaiko Emakumeen Asanbladan emandako bi hamarkadak kontutan hartuta.

Maldonado Filosofia irakaslea da institutu batean, eta bereziki konprometitua dago hezkuntza publikoaren defentsarekin, baita estatu laiko batenarekin ere. Bere beste interesetako bat da hizkuntzaren filosofia, eta hala islatu du *Pikara Magazine*n eta *Berria* egunkarian argitaratutako artikulu askotarikoetan, zeinak diharduten zis- aurrizkiari, lengoaia politikoki zuzenari edota aipatutako militantziaren eta aktibismoaren arteko matizei buruz. 2021ean artikulu luzeetatik liburu laburrera egin zuen jauzi *Hablemos claro* (Catarata) lanarekin, sortu zena gaur egungo testu feministetan aurki daitezkeen klixe, metafora, neologismo, anglizismo, itzulinguru eta jargoi psikologizatzaileak sortzen dioten asperralditik. Defendatzen duenez, horien erabilerak mugimendu feminista jendartetik aldendu ez ezik, errealitatearen analisia pobretzen dute.

Erregistro linguistikoaren modulazio falta kritikatzen duzu. Hau da, berdin adierazten garela geure artean hitz egiten dugunean eta jendarteari zuzentzen gatzaizkionean.

Arazoa da hizkera berdina erabiltzea udalaren aurrean egindako elkarretaratze batean eta doktoretza tesi baten defentsan. Trantsizioan, Matarraskak bezalako kolektiboak sortu genituenean, feminismo militantea besterik ez zen existitzen; orain, emakume asko akademiaren bitartez heltzen dira feminismora. Batez ere gauza onak ekarri dituen borroka baten fruitua dira ikasketa feministen masterrak, baina era berean, ulergaitza den jargoia ekarri ahal izan dute berekin. Arazoa ez dator akademiatik bakarrik; mugimendu feministak jendartearen gehiengoarentzat ulergaitzak diren leloak aukeratzeko arrazoiak zein diren aurkitzen saiatzen ari naiz, "Estatu zisheteropatriarkalaren aurka", kasu, lehen erabiltzen genituen lelo ulerterrazagoen ordez, "Lanaren eta enpleguaren banaketa", adibidez.

Zure hipotesia da beldurtzeko jargoi horrekin desberdintzea bilatzen dugula, feminismoa jendarteratu den garai hauetan.

Bai, terminologia inflazio horrek kointziditu egiten du mobilizazioei eta zilegitasun sozialari dagokionez feminismoak izan duen arrakasta itzelarekin. Psikoanalitikoa eman dezake, baina antzematen ditut inkontzienteki gutxiengo abangoardia izatea faltan botatzen dugunaren adierazleak. Feministaz zinela esatea zerbait terriblea zen duela 20 edo 30 urte, baina berezi egiten zintuen. Asko izatera iritsi nahi genuen eta lortu dugu, baina abangoardia izateak ere bazuen bere zera.

Badaude *feminizidio* bezalako zenbait termino oinarrizko gure hiztegi feministan tokia egin dutenak. Zergatik iruditzen zaizu arazo bat neologismoen erabilera?
George Steinerrek zioen bezala, eta feministok ondo dakigunez, izendatzen ez dena ez da existitzen. *Feminizidio* bezalako kontzeptu berri batek argitzen ditu gerizpean zeuden errealitatearen eremu zehatzak. Normala da hizkera feministan mailegu eta neologismoak txertatzea, baina ni ez naiz ari horien erabilerari buruz, baizik eta horien gehiegizko erabilerari buruz. Batzuetan, kuantitatiboa dena oso handia denean, kualitatibo bilakatzen da eta gertatzen ari den zerbait ematen du ezagutzera. Ulergaitzak diren terminoen inflazioak efektu paradoxiko eta kontraesankorra eragiten du: ohiko hitzak erabiltzeari uztean, errealitatea argiztatzeari uzten diogu, berau ezkutatuaz. Balirudike aditzera emateko hitz egokiena aurkitu ordez, *guay* denaren katalogoa oso-osorik erabiltzeaz gaudela adi: "Zeharkatzen nau", "interpelatzen nau", "bazterretan"... Klixeen, egindako esaldien, esloganen eta leloen errepikapen amaierarik gabekoa da beste arazo larri bat, uste baitut errealitatearen gaineko gure analisia asko pobretzen dutela, eta horien gehiegizko erabilera bateraezina dela pentsamendu kritikoarekin.

Horietako bitan jartzen duzu arreta: "Iraultza feminista izango da edo ez da izango" eta "Zaintzak erdigunean jarri".
Adierazmolde *guay*en erakustegiak, interes handiagoa adierazten du zein taldekoak garen ulertzera emateko, pentsamendu bat komunikatzeko baino. Eta hori ikaragarria iruditzen zait. "Zaintzak erdigunean jarri" metafora polita eta adierazkorra zen. "Iraultza feminista izango da edo ez da izango" esaldiak kritika gisa parafraseatu zuen Che Guevararen "Iraultza sozialista izango da edo ez da izango". Baina horiek ase arte errepikatzeak higatutako lelo bilakatu ditu, eta askoz gertuago kokatu errezotik, mantratik. Egitura sintaktikoen amaierarik gabeko imitazio horrek ("Iraultza feminista antiarrazista izango da edo ez da izango", "Anti-arrazakeria feminista izango da edo ez da izango", eta abar) pentsamendu feministaren konplexutasuna eta aberastasuna ezkutatzen ditu.

"'Emakumeen askapena' tekleatzen badugu sareko irudi bilatzaile batean, manifestazioan doazen emakumeen zuri-beltzezko argazkiak agertzen dira. Aldiz, 'emakumeen ahalduntzea' bilatzen badugu, batez ere NBE-ren kartelak ageri dira. Niri ederragoa iruditzen zait askapen eta emantzipazio terminoetan pentsatzea mugimendua".

Gainera, zeure buruari galdetzen diozu zer esan ote nahi dugun zehazki "edo ez da izango" horrekin; ea formulatzen ari garena definizioa, profezia edota mehatxua den.

Bai, zeren esaten badugu "Iraultza feminista izango da edo ez da izango"... sandinista edo errusiarra ez ziren izan iraultzak orduan? Esloganek balio dute manifestazioan garrasi egiteko, baina arazoa azaleratzen da diskurtsora daramatzagunean pentsamenduaren garapenik gabe, zer esan nahi dugun argi izan gabe.

Nire desadostasunetako bat da *Barbarismos queer* liburuan oinarritzen zarela anglizismoen eta neologismoen gehiegizko erabileraren errua *queer* teoriari botatzeko. Halere, AEBetatik datorren pop feminismoan ere ugaritu dira *manspreading*, *mansplaining*, *slutshaming*... bezalako hitzak. Ez duzu uste joera horrek zerikusi gehiago duela globalizazioarekin, korronte feminista zehatz batekin baino?

Liburuan oinarritu baino gehiago, aipatu egiten dut, gaur egun feminismoan –edo korronte feminista batzuetan– erabiltzen den hiztegia argitu nahi duten hiztegi ugarien adibide gisa. Bai esaten dut liburuaren izenburua oso ele-ederra dela, terminologia asko zaildu denaren aitortza azpimarratzen baitu. Eta arrazoi duzu, fenomeno hau ez dute *queer* teoriak eta transfeminismoak soilik sortu. Terminologia berritzaileak leku ezberdinetatik datoz, eta hau da horietako bat, baina oso nabarmena nire ustetan.

Nartzisismoarekin lotzen duzu Donna Harawayren "kokatutako jakintzaren" interpretazioa, zeina abiatzen den norberak norbere diskurtsoa nondik enuntziatzen duen esplizitatzetik. Artega sortzen dizu ikusteak subjektuarekiko kezka gehiago predikatuarekiko baino. Gainera, paternalistatzat jotzen duzu zenbait pertsonaren ahotsa zilegiztatzea errealitate sozial bati buruz hitz egiteko soilik kolektibo zapaldu baten parte direlako, baloratu gabe horien diskurtsoa sostengatzen den edo ez. Baina nork epaitzen du hori? Akaso ez dago *señoro* gehiegi edozein gairi buruz lelokeriak esateko legitimatuta? Uste dut *Pikara Magazine*k ulertu duela ahots ijitoak edo transak falta zirela, eta hasteko, horiek esateko zeukatena aditzea garrantzitsua zela.

Sozialki zilegiztatutako ezagutzaren kontu honi heltzen diot erreferentzia eginez terreno horretan arrakasta gehien daukaten autoreei: Susan Harding eta Donna Haraway. Bakoitzak bere erara, baina biek defendatu dute –beraien artean ere polemika izanik– letra larriz idazten den zientziari kritika, eta adierazi dute objektibitatea ezinezkoa dela. Jakintza guztiak dira kokatuak, kontua da feminismoan bat-batean derrigortasuna dagoela esplizitatzeko zein tokitatik hitz egiten dugun, hori ulertuaz denboran eta espazioan kokapen bezala, eta baldintza sozial batzuetan. Hala bada, nik ulertzen dut "feminismo beltzaz" hitz egitea dela modu bat salatzeko kolorgetzat jo izan den feminismoa egiatan zuria dela. Eta berdin

lesbofeminismoarekin. Arazoa sortzen da nondik hitz egiten den hainbeste azpimarratzen denean eta esaten denaren gaineko fokua kasik osorik kentzen denean, eztabaidatu behar duguna hori dela uste dut. Eta defendatzen dut eztabaida horietan denok parte hartu ahal izatea, gure determinazio identitarioak edozein direla ere.

Identitateez hizketan hasita: neoliberalismoarekin lotzen duzu pertsonen sexualitatea eta generoa zehaztasunez definitzeko etiketen ugaritzea (genero jariakorra, espektro asexuala…). Nola kontziliatu ditzakegu beharrizan indibidual horiek eta subjektu politiko indartsuen eraikuntza edota finkatzea?

Zein eta zer naizen azpimarratzeko beharrizan etengabeko eta konpultsiboa, ni-a, egoa, beti lehen planoan jarri nahi hori, izan identitate sexualaren eta generoaren ikuspuntutik zein beste batetik, sortutako beharrizana dela uste dut, lehen esaten zen bezala. Botere finantzarioaren interesek sortua, botereak bere horretan, alegia. Ni-en erakusketari "beharrizan indibidual" deituta, bataila galdu dugu. Kapitalismoaren legitimatzaile den ideologiak, neoliberalismo deitzen dugun horrek, beharrizanak eta desirak bildu eta amalgama egiten du horiekin, batzuk eta beste gureak direnaren –are, gure "ni" petoena direnaren– fikzioa txertatuz. Pozik irensten ditugun arreta desbideratzeko maniobrak dira. Eta hortxe gaude, arreta jarrita gurekin termino zehatz bat erabil dadin, besteren arretagatik lehian ez aurrera ez atzera… eta egiatan inporta duenetik urruti. Ez dut uste kontziliazioa denik kontua, baizik eta amuak ez irenstea, gozoki forman badatoz ere.

Liburuan saiatzen zara testu konplexuak –ulertzeko ahalegin intelektuala eskatzen dutenak– testu hermetikoetatik bereizten. Zein da muga? Askok ezin izan dugu Judith Butler-en *Genero nahasmendua* lanarekin. Nahitaez zaila den liburua da, ala lar kriptikoa dela da kontua?

Butler asko kritikatu dute aditzera emateko bere formagatik. Nik dezente irakurri dut, eta ez dut ukatuko zenbait ideia on dituela… Konplexua eta kriptikoa denaren arteko muga desberdintzeko formula magikodun makinatxorik ez daukat. Egia da hainbat testu astiro irakurri behar ditugula, azpimarratu eta berriz horietara itzuli. Feminismoak lantzen dituen gaiak konplexuak dira, postulatu oso indartsuak daude eginak filosofiatik, psikologiatik, soziologiatik… Badira formakuntza minimo bat exijitzen duten autore batzuk, baina horiek ulertzeko ahalegina egitean portu onera heltzea eta zerbait argi ateratzea posible da. Aldiz, bada hainbeste perifrasi eta itzulinguru idazten duelako ulertzerik ez dagoen autorerik, biribila biribiltzea baita, funtsean, egiten duena.

> *"Normala da hizkera feministan mailegu eta neologismoak txertatzea, baina ni ez naiz ari horien erabilerari buruz, baizik eta horien gehiegizko erabilerari buruz"*

Biribila biribiltzea deritzozu, baita ere, hizkuntzaren erabilera inklusiboa egiteko probatu diren hainbat formulari: arroba, ixa, "e" hizkia… Zergatik interpretatu biribila biribiltze bezala, eta ez entsegu bezala? Ohartu ginen arrobek hitzak hiperesteka bilakatzen zituztela, gero jakin genuen ixa hizkiak itsuak diren pertsonen irakurketa sistemak oztopatzen dituela… [Gazteleraz egindako elkarrizketa izanik, eta hizkuntza hori genero gramatikalduna denez gero, genero markarik gabe hitz egin eta idazteko formulez ari dira].

Agian arrazoi duzu, zentzuzkoa iruditzen zait froga eta akats prozesu bezala ulertzea. Beharbada distantzia historikoa behar izango dugu aztertzeko. Feministoi asko axola digu lengoaiak, errealitatea aldatu nahi dugulako eta ez dugulako nahi kolaboratu darabilgun hizkuntzan inplizituki gordetzen den arrazakeriarekin, matxismoarekin edota klasismoarekin. Baina ezin dugu guretzat bakarrik izango den hizkuntza bat asmatu, ezta?

Konparatu dituzu garai historiko ezberdinetan feminismoak erabili dituen hitzak eta orduko momentu sozialaz esaten dutena: emakumeen emantzipazioa, emakumeen askapena edota emakumeen ahalduntzea.

"Emakumeen askapena" tekleatzen badugu sareko irudi bilatzaile batean, manifestazioan doazen emakumeen zuri-beltzezko argazkiak agertzen dira: termino oso politikoa zen, mugimendu baten borrokarena. Aldiz, "emakumeen ahalduntzea" bilatzen badugu, batez ere NBEren kartelak ageri dira. Niri ederragoa iruditzen zait askapen eta emantzipazio terminoetan pentsatzea mugimendua. Fase horiek gainditu ditugula da orain premisa, baina ez gara termino politikoetan ari "boterera heltzeaz" hizketan, are gutxiago "boterea hartzeaz"; horren ordez, "ahalduntzeaz" hitz egiten dugu, oso psikologizatzailea dena.

Psikologiaren eragin hori da seinalatzen duzun beste kezketako bat. Baina horiek denak, neologismoak eta anglizismoak, perpaus korapilatsuak, klixeak, ez dira feminismoaren kontua bakarrik. Zergatik bideratu kritika hizkera feministara? Ez da *señoro*ek aski kritikatua?

Denbora guztian erabili beharreko terminoen erakustegiaren erabilerari dagokionez, rankinean oso goian dauden beste bi eremu dira pedagogia eta garapenerako lankidetza. Baina feminismoa da niri gehien inporta zaidan eremua. Esan didate adibide gutxi jartzen ditudala, baina egia esan, ez nuen nahi inor seinalatu bereziki, baizik eta hausnarketa orokorra sortu. Liburua idazten hasi nintzenean, esaldi eta paragrafoak biltzen zituen karpeta bat neukan ordenagailuan (horien autoreekin, noski), eta horietako asko lagunak edo kideak dira. Nire bikoteak, Itziar Abadek [*Pikara Magazine*ko etxelagun], lagundu zidan ulertzen zeinen garrantzitsua zen planteatzen dudan hausnarketa eta eztabaidatzen jarraitzeko gonbita egitea, eta ez hainbeste esaten dudana zehatz-mehatz dokumentatzea. Barru txarra kentzen ere lagundu dit. ●

OHARRA: Elkarrizketa hau San Frantziskoko Udaltegian (Bilbo) gauzatu zen, publikoarekin, Lucía Martínez Odriozola II Kazetaritza Feminista Kongresuko programaren baitan.

Proletarii, duela 2.000 urte eta orain

NAGORE IRAZUSTABARRENA URANGA

Erroma, K.o. II. mendea. Aulus Gellius abokatu eta idazleak *Atikako gauak* obra osatu zuen Marko Aurelioren agintaldian. Idazlearen obra ezagun bakarra da eta bertan jaso zituen inguruan entzuten zituen eta liburuetan irakurtzen zituen orotariko kontuak: historia, geometria, gramatika, filosofia... Horri esker galdutako hainbat obra eta dokumenturen berri iritsi zaigu. Lan horretan behin baino gehiagotan agertzen da *proletarii* hitza: Hamabi Taulen Legeari erreferentzia egiten dionean agertzen da, adibidez, eta metaforikoki ere erabiltzen du goi mailako idazleez ari denean, behe mailakoak deskribatzeko. Izan ere, *proletarius* hitza *proles*-etik dator –leinua edo ondorengoak, latinez– eta "haurrak egiten edo zaintzen dituena" esan nahi du.

Terminoa Errepublika garaian sortu arren, Erromatar Inperioan hartu zuen indarra. Inolako ondasunik ez zeukaten herritarrek erroldan seme-alabak erregistratzen zituzten eta, hala, proletarioek erromatar gizarteko seigarren taldea, klaserik baxuena osatzen zuten, eta haien ekarpen bakarra erromatar armadarako soldaduak ekoiztea zen.

Erdi Aroan erabiltzeari utzi arren, XVI. mendeko Ingalaterran agertu zen, berriro klaserik baxuena izendatzeko. Eta Frantziako Iraultzan ñabardura berriak erantsi zizkioten: proletarioak eskubiderik gabeko langileak ziren, baina beren egoeraren kontzientzia zutenak. XIX. mende hasieran, Henry de Saint Simon-entzat jabetzarik gabeko masa ziren, eta Louis A. Blanqui-k kapitalisten antagonistatzat jo zituen. Jakina, urte batzuk geroago, Friedrich Engels eta Karl Marxek nabarmendu zuten antagonismo hori. *Manifestu komunista*-n proletariotza ekoizpen bitartekoen jabetzarik ez duen klase soziala da, bere lan indarra besterik ez duena.

CHIARAMONTI MUSEOA

Haurrak erromatar sarkofago batean. Antzinako Erroman *proletarii* zeritzenak haurrak egiteko ahalmena besterik ez zeukaten herriatarrak ziren eta klase sozial baxuena osatzen zuten.

Hala ere, jatorri etimologikoa ez zuen galdu terminoak; estatu proletarioan, emakumeek beren gorputzaren eta ugalketaren kontrola izango zuten. Leninek berak, esaterako, Urriko Iraultza baino lehen ere, abortuaren aldeko aldarria egin zuen, eta 1920an Sobietar Batasuna izan zen abortua legalizatzen lehena.

Gizarte postindustrialean, proletarioak beste termino batzuekin bat egin du: egungo proletarioak "kognitarioak" dira maiz, ezagutza besterik ez dutenak, ezagutza baita merkatu berrien lan indarra. Edo "prekario" hitza ere proletarioaren sinonimo bihurtu da, lan segurtasunik eta eskubiderik eza medio.

Baina proletariotzaren zentzu erromatarra indar betean da. Berriki AEBko Auzitegi Gorenak ahalbidetuta, hainbat estatuk atzera abortua debekatzea eta zigortzea erabaki dute. Beste ondasunik ez duten emakumeak ekoizpen bitarteko hutsak dira, XXI. mendeko inperioen legioak elikatzeko erabiltzen direnak. ●

KARL BRYULLOV

Vesuvio ez zen abuztuan lehertu

Plinio gazteak Tazitori idatzitako gutun batean aipatzen da Ponpeia eta Herkulano suntsitu zituen Vesuvioren erupzioa 79. urteko abuztuaren 24an izan zela. Baina gutuna ez da originala, Erdi Aroko kopia bat baizik, eta hainbat adituk zalantzan jarri izan dute data hori, besteak beste, aztarnategian intxaurrak, gaztainak, granadak eta udazkeneko beste fruitu batzuen arrastoak aurkitu izan dituztelako. Orain, Italiako ikerlari talde batek data bi hilabetez atzeratu du, 79ko urriaren 24ra, eta horretarako froga argi eta sinplea baliatu du: Ponpeiako etxe bateko horman ikatz-ziriz egindako inskripzio bat topatu zuten 2018an, 79ko urriaren 17ko data idatzita daukana. ●

ERREDAKZIOA

ENERITZ ARZALLUS

Udako lanaldia ARGIAn

ITSASO ZUBIRIA ETXEBERRIA

Maddi Viana Zubimendi. @maddi76_ izenez ezagutua Twitterren. Donostiakoa da, Egiakoa, justuagoak izanda; 24 urte egin berria da eta ARGIAn ari da ekainaren 1etik lanean, unibertsitateko karrera egiten ari den bitartean praktikaldia egiteko aukera aprobetxatuta. Uda osoa pasako du Lasarte-Oriako egoitzan eta hasiera nolakoa izan den galdetu nahi izan diogu.

"Gustura" dago erredakzioan topatu duenarekin, "jendea beti dago laguntzeko prest eta oso giro ona dago taldean", azpimarratu du. Praktikaldia modu desberdinetara antola daiteke, lan batzuk distantziara egin, telelan bidez, Lasarteko egoitzatik oso gertu bizi ez direnentzat hori arazo bat izan ez dadin. Baina berak nahiago du egunero bertaratu: "Erredakzioan egoteak beste harreman batzuk sortzen ditu eta lanean ere zentratuago zaude, gaiak ateratzen dira, hitz egiten da gauza askotaz... etxetik arituta hotzagoa dela iruditzen zait", adierazi digu.

Kazetaritza ikasketak egiten ari da gaur egun, baina aurretik Lanbide Heziketako ikus-entzunezko ekoizpenari lotutako zikloa ere egina du. Kazetari moduan egiten dituen lehen praktikak dira ARGIAkoak. Aurretik, ordea, ikus-entzunezkoetan espezializatutako Digitalak enpresan ere egina du antzeko egonaldi bat.

Ez da geldirik egotekoa. Ikasketak burutu bitartean egin ditu han eta hemen bere lantxoak ere, bere ikasketei agian oso lotuak joan ez direnak baina bizimodua ateratzen edo, behintzat, lehen sosak eskuratzen laguntzen dutenak. Bizitzan moldatzen ikasteko lehen pausoak. 18-20 urterekin eman daitezkeenak eta gaur egun, tamalez, kasu askotan atzeratzen ari diren lehen pausoak. Kalean ere aritzen da lanean, auzoan, herrian, asko ikasten den kobratu gabeko lan horietakoetan.

Bitartean, ez ditu albo batera utzi ikasketak eta lan profesionalera salto egiteko dituen aukerak. Unibertsitatean egindako lanen bat ere beste aldizkari batean argitaratu ahal izateko lanean ari dira.

Datorren urtean bukatuko du goi mailako ikasketetako ibilbidea. Gradu amaierako lana du oraindik egiteko, baina ideia dagoeneko argi du: telesail bat bikoiztuko du. Ez dira euskarazko bikoizketaren urrezko urteak eta, bereziki horregatik, hutsunea ikusten duelako nahi dio karrerako azken lanari ildo horretatik tira. Helburua, egindako lana publiko egitea. ●

NOBEDADEA GURE AZOKAN:

'Inor ez da ilegala' kaputxadun jertsea

Durangon, Ziburun eta izan garen beste azoka eta tokietan sarritan egin izan digute galdera bera: "Kaputxaduna baduzue?". Aspaldiko eskaera horri erantzuteko produktu berria jarri dugu salgai ARGIAren Azokan: *Inor ez da ilegala* kaputxadun jertsea. Artizarreko lagunek Amezketan duten tailerrean serigrafiaturik, euskarazko eta woloferazko mezua aldamen batean darama, txikiagoan, eta poltsiko zabala ere badu aurrrealdean. Oraingoz gris urdin argian egin ditugu jertseok eta XS eta 2XL taila artekoak daude eskuragarri.

Inor ez da ilegala proiektuko beste produktu guztiek bezala, ordaindutako dirutik 2 euro Mbolo Moye Doole elkartearentzat izango dira. Batik bat kale salmentan aritzen diren migratzaileak dira eta hainbat ekimen ari dira aurrera eramaten bizibide duina izateko eta euren eskubideak aldarrikatzeko.

Jertseak **azoka.argia.eus** webgunean eros daitezke 32 euroan, baita *Inor ez da ilegala*-ren produktuak eskaintzen dituzten saltokietan ere. Gainera, beste hainbat nobedade ere badituugu: kamisetaren ohiko koloreez gain, gris iluna dago orain aukeran; eta poltsaren edizio berezia ere sortu dugu, kotoi birziklatuz egina eta gris kolorekoa, mezua morez daramala. Informazio gehiago nahi izanez gero, azoka@argia.eus e-postan edo 943 37 15 45 telefonoan aurkituko gaituzue.

GARENA JATEN DUGU

JAKOBA ERREKONDO
JAKOBA@BIZIBARATZEA.EUS

Fernando Pessoa poetak esan zuen paisaian geu ikusten garela, geu garena ikusten dugula.

Jaten duguna gara, maiz entzungo zenuen esaera da, esan ere esango zenuen agian. Nik diot garena jaten dugula; geure buruak hagintzen duela zer jan. Eta jaten dugun horrek sortzen du Pessoaren paisaia, eta gurea. Eta paisaiak ez dira pertsonenak: taldeenak, komunitateenak, herrienak baizik. Eta hortxe, hautematen dugun paisaia horretan dago gure emozioen memoria. Paisaia emozio aberria da.

Memoria bai. Gustuko izango ditugula sumatzen dugun tokietara bidaiatzen dugu; bihar-etzietan joango gara. Badakigu, denboran zehar bidaiatzeko, igarotako garaietara joateko, era ia bakarra zaporeak eta usainak dira. Jaten duguna tartean.

Jaten duguna kultur eraikuntza da, denon artekoa. Amaia Gabilondo kultur eragileak ederki asko adierazi zuen elkarrizketa batean: kultura emozioen ospitalea da. Raquel Martín neurozientifikoak dio: jaten dugunak nola sentitzen garen eragiten du, garuna eta hesteak lotuta daude.

Eta jatearen jakintza horretan nork "hagintzen" du? Nork esaten du zer jan eta zer ez? Garai batean, adibidez, martorria (*Coriandrum sativum*) asko erabiltzen zen, gaur egun perrexila (*Petroselinum crispum*) bezala. Judutarrek erabiltzen zuten batez ere, eta espainiar erregeek zanpatu eta kanporatu zituztenean martorria sukaldeetatik desagertu zen; judutzat hartu eta gogor zigortzeko arriskua zegoen martorria erabiliz gero. Mediterraneo eremu osoan oso ohikoa zen, baina Espainiaren haginpeko lurraldeetan desagertu egin zen. Portugalerako muga igarotzea nahikoa duzu bere lurrin gozoa nonahiko otordutan topatzeko. Martorria inkisizioak kendu zigun.

Txerriarekin antzeko zerbait gertatu zen otean nago. Judu eta musulman "fedegabeengandik" bereizteko haiek jaten ez zuten txerria raka-raka jaten hasi ote ziren. Txerrizaletasuna Inkisizioak ekarri ote zuen?

Jakiak sortzea, lantzea eta jatea kultura bizia direnez, etengabeko gorabeherak, kutsadurak, maileguak, bilakaerak jasaten ditu, baita tabuen menpe ere.

Jatea ez da soilik elikatzea. Janez historian izan garena bizitzen dugu eta historia, paisaia, baratzeak eta garena sortzen ditugu.

Sigmund Freud neurologo eta psikoanalisiaren sortzaileak esan zuen: denbora alferrik galdu dut, bizitzako gauza garrantzitsu bakarra baratzezaintza da. ●

Garai batean, martorria asko erabiltzen zen. Judutarrek erabiltzen zuten batez ere, eta espainiar erregeek zanpatu eta kanporatu zituztenean martorria sukaldeetatik desagertu zen; judutzat hartu eta gogor zigortzeko arriskua zegoen martorria erabiliz gero.

IRAKURLEAK GALDEZKA

Nire arazoa da garo asko daukadala. Noiz moztu behar da gutxitzeko?
Joselu Galarraga

Galdu arazi nahi ditugun landare guztiak, garoa, otea, asuna, menda, eta abar, beti ilgoran moztu behar dira. Ilgora onenak maiatzekoa, ekainekoa eta uztailekoa dira. Dagoeneko uztailatik atzera ilgoraero moztu. Uztailekoa 12-25 izango da, abuztukoa 9-22 eta irailekoa 6-18.

Garoak lur azidoak nahi ditu eta horri kontra egiteko karea ematea oso ona da, koxkorrean bada hobe. Urtero eman udaberriaren hasieran, garoa atzeratzen dela ikusi arte; gutxi gorta behera 150-200 gramo metro koadroko.

Cherry motako tomate landareak landatu nituen baratzean, hazi egin dira baina tomate-garunik ere ez da ageri oraindik. Beranduago etxe ondoan landatutako tomate landareak ostera, hasi dira fruitua ematen (ez dira cherryak). Cherry motako tomateak beranduago hazten dira, ala zeozer egin beharko dut fruitua ematen hasi daitezen?
Itziar Lopategi

Asun-lurra bada, argi dago, nitrogeno asko dago. Horrek lorea eta fruitua atzeratzea dakar. Hala ere ez nintzateke gehiegi arduratuko, beranduago izango dituzu fruituak; udazken lehor samarra badugu zorionekoa zu, orduan izango duzu nahikoa gerezi tomate. Laguntzeko errautsa edo kare pixka bat nahasi landareen azpian dagoen lurrean, eta orduan bai, orduan ureztaketa on bat eman.

Bidali zure galdera:
bizibaratzea@bizibaratzea.eus

DELIKATETXE

SALDA BADAGO… OILO HARAGIA ALFERRIK GALTZEN EZ UZTEKO PROIEKTUA

GARAZI ZABALETA
@TIRIKITRANN

Oilo-salda jaki ohikoa izaten zen gurean duela ez asko, eta salda egiteko erabilitako barazki eta gainerako osagaiak ere ongi aprobetxatzen ziren gero beste zerbait prestatzeko. "Hemen dena aprobetxatzen da" filosofia zabalduago zegoen garaietan oinarritu dira Delikatetxe proiektuko kideak haien egitasmoa martxan jartzeko. Arrautza jartzeari uzten dioten oiloak ezertarako aprobetxatzen ez zirela ikusita sortu zitzaien ideia Xabier Gorrotxategi, Alazne Jayo eta Edurne García bultzatzaileei. "Arazoa da etxalde txikientzat, oilo horiek erretiratzeko batzuetan ordaindu ere egin beharra baitute", azaldu du Garciak. Hurbileko ekoizleei oiloak erosi eta salda eta bestelako produktuak egiten dituzte Elorrioko lantegian.

SU EZTITAN PRESTATUTAKO PROIEKTUA

"Lehen asko erabiltzen zen oilo haragia etxeetan eta errezeta ugari zeuden, oso zaporetsua eta elikagarria baita. Orain, ordea, modu industrialean ekoitzitako oilaskoa oso merke saltzen da, eta jendeak oiloa ordezkatu eta prestatzeko ohitura galdu du", dio Garcíak. Izan ere, haragi gogorragoa da oiloarena, su eztitan eta denbora luzeagoz eduki beharrekoa. Egungo bizi erritmo azkarrerako motelegia, akaso? "Pentsatu genuen jendeak ohiturarik ez badu ere, guk eginda agian bazegoela aprobetxatzeko aukera", gehitu du kideak.

Hurbileko ekoizleei eta baldintza jakinetan ekoizten dutenei erosten dizkiete oiloak eta gainontzeko elikagaiak Delikatetxekoek, eta eraldaketa guztia Elorrioko gunean zentralizatzen dute. "Ekologikoan ari direnei eta Eusko Label edo Reyno Gourmet zigilua duten hurbileko baserritarrei hartzen dizkiegu oiloak, gutxieneko baldintza batzuen arabera haziak direla bermatzeko". Ekonomia zirkularreko proiektu gisa aurkezten dute Delikatetxe, merkaturatzeko aukera handirik ez duen elikagaia galtzen utzi beharrean, hori eraldatu eta balioa ematen diotelako. Bi helburu nagusi dituzte, beraz: janaria alferrik galtzen ez uztea, eta hurbileko ekoizleei aukera bat ematea.

SALDA, HANBURGESAK ETA BARAZKI-KONTSERBAK

Oilo-salda, bularki-hanburgesa desberdinak, porrua kontserban eta tipulada aurkituko ditugu Delikatetxeko katalogoan. Galdetuko du norbaitek zer partekatzen ote duten jaki horiek… "Denari probetxua ateratzea da gure asmoa. Porrua zergatik? Bada, zati berdea saldarako erabiltzen dugunez, beste zatiarekin kontserbak egiten ditugu. Tipuladarako ere, saldan erabilitako tipulak darabiltzagu…". Garciak azpimarratu duenez, etxean beti egin izan den hori egiten dute. "Aprobetxamenduaren ikuspegia galdu egin da, baina horri buelta ematen saiatu behar gara".

Eraldaketa prozesua ahalik eta modu jasangarrienean egiteko, gainera, eguzki-plakak dituzte argindarraren kontsumoa gutxitzeko eta ura berotzeko. Horrez gain, guneko tresneria eta makineria inguruko ekoizleei ere eskaintzen dizkiete, haien soberakinekin bestelako kontserbak egiteko. ●

LGTB mugimendua dagoen etsairik handiena balitz bezala ulertzen dute poloniar politikek

MAREK KOZAKIEWICZ

Zine zuzendaria

Apirilaren hasieran estreinatu zen Marek Kozakiewicz zinemagilearen *Silent Love* filma Suitzako Visions Du Réel jaialdian. Urte luzez filmaturiko dokumentalak islatzen du gizarte homofobo batek ezkutatzera behartzen duen maitasuna, alde batetik; bestetik, familia eredu ez hegemoniko horren intimitatea eta konplizitatea. Zuzendariarekin hitz egiteko aukera izan dugu, filmak iradokitzen dituen harietan sakontzeko.

AINHOA GUTIÉRREZ DEL POZO / TERESA LARRUZEA

Lehenengo eta behin, zure filma deskribatzea nahi genuke. Hasieran badirudi doluaren inguruko filma dela, norbait galtzearen ingurukoa. Gero, ordea, beste gai batzuk gailentzen dira. Azalduko diguzu hori?

Hori zen hasieran nuen helburua. Hasieratik pentsatu dut filma dolu prozesuak abiarazi behar zuela, heriotza jorratu nahi nuen. Ondoren, horren garapena erakustea zen helburua, biziaren inguruan mintzatzea, eta familia baten eraikuntza islatzea. Beraz, protagonisten amaren heriotzarekin hasi nuen kontakizuna, eta ondoren, familia berri horren jaiotzarekin jarraitu: heriotzatik bizitzara joan nahi nuen. Esaldi bakarrean kontatu beharko banu, familia ez-konbentzionala eraikitzearen inguruko filma dela esango nuke, herri txiki eta kontserbadore batean kokaturik.

Zein harreman zenuen filmatzen dituzun pertsonekin? Filmatu aurretik ezagutzen zenituen, lagunak zineten?

Gure amak elkarren lagunak ziren. Gure ama ondoko herri batekoa da, eta Milos eta Agaren ama ezagutzen zuen. Euren amari minbizia diagnostikatu ziotenean, gure ama gehiago gerturatu zitzaien laguntzeko asmoz. Garai hartan nik ere osasun arazo batzuk izan nituen, eta gurasoekin ohi baino denbora gehiago eman nuen. Nolabait, bi familiak elkarrengana hurbildu ziren. Beren amaren gaixotasuna filmatzen hastear nengoen, bera prest baitzegoen kamera aurrean azaldu eta prozesua erakusteko. Heriotza, ordea, espero baino lehenago etorri zen. Hileta ostean hasi nintzen filmatzen, Aga eta Milos anai-arreben etxean.

Garai hartan, aitzitik, ez zenekien Aga lesbiana zela, ezta bikotea zuenik ere.

Ez. Une horretan pentsatu nuen: "Ados, Milosen inguruko filma egingo dut". Ama galdu zuenean familiak zuen lehen aukeretako bat Milos Varsoviara eramatea zen, han zeukaten anaia baten etxera. Beraz, filma aldaketa horren ingurukoa izan zitekeela otu zitzaidan: inoiz he-

rritik atera ez, eta ama galdutakoan hiri handi batera mugitzera behartuta dagoen mutiko batena. Gauzak oso bestela gertatu ziren, ordea. Psikologoek gomendatu zuten Milos herrian bertan gera zedin, inguruari oso lotua baitzegoen. Eta, beraz, Aga arrebak Alemania utzi eta Poloniara mugitzea erabaki zuen, atzerrian zeukan bizimodua utzi eta anaia gaztea zaintzea. Horrek behartu zuen Milosen legezko tutoretza lortzeko prozesu batean sartzera, hiru epaiketa pasa behar izan zituen. Bestalde, neska-lagunarekiko harremanean ere eragin zuen horrek, Maijak ere Poloniara etortzea erabaki baitzuen, herrira bueltan.

Noiz jakin zenuen Maija eta Aga bikote zirela? Eta horrek nola eragin zuen filmaren garapenean?
Ni izan nintzen haien harremana aitortu zioten lehen pertsona, eta hamar urte zeramatzaten elkarrekin. Ez nekien ezer, baina Agak pentsatu zuen banekiela. Esan zidan: "Marek, zerbait esan behar dizut. Badakit segur aski ohartu zarela, baina Maijarekin harreman sentimental bat daukat". Ni zur eta lur gelditu nintzen, ez nuen batere espero, baina ez nuen mindu nahi, eta horrela esan nion: "Bai, Aga, noski ohartu naizela, eta oso pozik nago zuengatik". Beranduago esan nion kontatu zidanean ez nuela batere susmorik, baina deseroso sentitu ez zedin gezurra esan niola; denok egin genuen barre gerora.

Oso momentu berezia izan zen hura, konfiantza handia jarri baitzuen nigan. Ziur aski, errazagoa zen ezezagun bati kontatzea, lagun edo senitarteko bati baino. Nirekin eremu ziurra sentitu zuen, eta konfiantza izan zuen hori kontatzeko. Pentsatzen dut era batean haien prozesuaren parte izan nintzela, bi izateko prozesuaren parte, beldurrak gainditzearen eta harrotasunez horren inguruan hitz egitearen parte. Oso zaila behar du horrelako komunitate itxi eta kontserbadore batean bizitzeak, zeinean gizarteak eta poloniar politikek LGTB mugimendua dagoen etsairik handiena gisa ulertzen duten. Badira kolektibo horren kontrako legeak, eta kontrakotasuna

MAREK KOZAKIEWICZ

Polonia, 1986

Zinema zuzendaria eta argazki zuzendaria da; bideoklip eta multimedia artista. Łódźeko Zinema Eskola Nazionalean (PWSFTviT) graduatu zen Zinema Fakultatean. Łódźeko Unibertsitatean Film Ikasketak ere egin zituen.

Bere lehen metraje luzeko dokumentala, *Silent Love*, Visions Du Réel eta Hotdocs 2022 festibaletako programa ofizialean aukeratua izan da. Proiektuak DOC LAB POLAND saria jaso zuen eta Accelerator Saria 2019 DOK Leipzig film azokan.

Egun, zuzendari eta argazki zuzendari gisa Poloniako gazte ez-binarioei buruzko film berria lantzen ari da, Netflix Originals-ek ekoiztua.

antzeman daiteke telebista publikoan, espazio publikoetan eta elizan ere. Beraz, adore handia eskatzen du horren inguruan hitz egiteak, batez ere zu ere pentsamolde horrekin hazi baldin bazara herri txiki batean, eta ez bazara hiri handi bateko aktibista bat. Oso indartsuak izan ziren guzti horri aurre egiteko.

Haiek, ordea, ez ziren oraindik armairutik atera beste inoren aurrean, herriaren aurrean. Momentu batean ohartu zinen hori izango zela filma gidatuko zuen haria, eta haiek pixkanaka onartu zuten nazioarteko film batean aterako zirela armairutik. Nolakoa izan zen prozesu hori?

Elkarrekin harreman sentimentala zutela jakin nuenean pentsatu nuen ez zela posible horri buruz filma egitea. Ezkutuan zeramaten harremana, beraz ezinezkoa zen filmatzea, ez zuen zentzurik. Ez zuten horren inguruan hitz egin nahi, beraz ez zegoen modurik film hori egiteko. Halere, denbora asko igarotzen ari nintzen Aga eta Milosekin, haien biziaren parte nintzen, eta Aga askotan egoten zen Maijarekin bideo-deietan. Noizean behin hitz egin nuen harekin, eta deiren bat ere filmatu nuen. Orduan, Agari proposatu nion Maijari bisita egin behar geniokeela Alemanian, eta hala egin genuen. Elkarrekin joan ginen autoan, oso urduri nengoen, beldur nintzen proiektuaren parte izan nahi ez zuela esango ote zidan. Baina aurkakoa gertatu zen. Ohartu nintzen bera proiektutik baztertua sentitzen ari zela, eta hara joan ginenean eta bera ere filmatzen hasi nintzenean pozik hartu zuela, familiako kide bihurtzen ari zela sentitu baitzuen, eta hori oso garrantzitsua zen berarentzat. Bere gogobetetzea ikusi nuenean hasi nintzen pentsatzen, agian, bazegoela harreman hura film batean kontatzeko potentzialtasuna.

Denbora asko behar izan genuen. Hasieran, zuzenki galdetu izan banie euren harremanari buruzko filma egin ote nezakeen, ezetz esango zidaketen. Baina prozesua luzea izan zen, denbora asko pasa nuen euren inguruan, kamerarekin, eta era batean ados zeuden horrekin. Urteak pasa ahala, hainbat armairutik ateratze egin zituzten, filmatzen nituen bitartean. Orain oso pozik eta harro daude, urduri egon badira ere. Jakin-mina dute ikuslegoaren erreakzioa zein den jakiteko. Haiei erakutsi nienean beldur nintzen ez ote zitzaien gustatuko, edo gauza bat edo beste kentzea eskatuko ote zidaten.

> *Familia ez-konbentzionala eraikitzeari buruzko filma da 'Silent Love'*

Beraz, azkenik, onartu zuten filmak euren harremana erakustea.

Bai. Eta uste dute samurtasuna erakusten duela, fina dela. Benetan gustatu zaie filmaren bidez eginiko hurbilpena. Pozik daude sentimendu ederrak ageri direlako, eta giro ona duelako, ez delako drama hutsa. Oso lasaigarria da filma norabide berean

ulertu izana; batzuetan protagonistek buruan dutena eta zinegileak egiten duena aurkako bidean joan daitezkeelako. Zortea izan dugu zentzu horretan.

Filmaren lengoaia da lorpen handienetako bat. Sotiltasunez mintzo da, eta badira isiltasun asko ere, esanahi desberdinak dituztenak. Zein izan da lengoaia hori eraikitzeko bidea? Eta nolakoa da "isileko maitasun" hori kontatzeko aukeratutako isileko lengoaia, filmaren izenburuak iradokitzen duenez?

Filma eraikia dago protagonistek eta nik dugun harremanaren gainean. Uste dut hori dela gauzarik garrantzitsuena. Denbora luzez egon nintzen haiekin bizitzen, eta familiako kide bilakatu nintzen. Bakarra nintzen errodatzeko orduan, neu arduratzen nintzen bai irudiaz bai soinuaz. Nire presentzia ohiko bihurtu zitzaien. Kamera bizkar gainean hartzen nuenean ni han ez banengo bezala egingo zutela adostu genuen, eta oso onak izan dira horretan. Baina dena zegoen eraikia elkarrekiko sentitzen genuen konfiantzaren baitan. Noski, izan genituen hainbat arazo, batez ere harremana ezkutatzen ari zirelako. Asko hitz egiten genuen horren inguruan, mahai gainean zegoen, baina sarri berriz etortzen zen... beldurra hor zegoen. Prozesu luzea izan zen. Zintzoki, uste dut filmak eragin positiboa izan duela zentzu horretan, ahalduntzen lagundu dituela, eta harrotasunez bizitzen. Prozesu ederra izan da, harrigarria guztiz.

Zalantza etiko asko izango zenuen, ezta? Nola egin film interesgarri bat eta, era berean, haien prozesua errespetatzen duen film bat.

Bai, noski. Prozesuaren erdian haiek filmaketa amaitu nahi izan zuten une askotan. Hizketaldi asko behar izan genituen aurrera egiteko. Hitz eman nien inoiz ez genuela erabiliko deserosotasuna eragin ziezaiekeen eszenarik, edo agertzea nahi ez zutenik. Noski, nik ez nuen egin nahi minduko zituen ezer, baina intentzio ona izateak bakarrik ez du balio, kaltea nahi gabe ere egin dezakezu-eta. Eta era berean, ezin gara ziur egon filmak zein eragin izango duen haien bizitzan. Benetan uste dut eragina izan duela modu batean. Esaterako, haien familiek Instagramen "gogoko dut" jartzen diote filmaren ekoizleek igotako informazioari, eta komentarioak idazten dituzte. Eta lehen ez zen horrela. Beldur handia zuten ea nola erreakzionatuko zuen familiak guzti honen aurrean, eta badirudi oso modu onean egin duela; horrek, gainera, haiekiko harremana sakontzeko bidea irekitzen die. Beste galdera bat da herriko jendeak nola hartuko duen filma, lehenago edo beranduago ikusiko baitute. Halere, baliteke giroa argitzen laguntzea, denek dutelako dagoeneko harremanaren berri, baina inork ez duelako ezer esaten.

> *“Ez ditut filmak ulertzen momentu jakin bateko gertakari gisa: niretzako unibertsalak dira, denbora ez da horren garrantzitsua”*

Zaintza etiko horren baitan hartu genuen erabaki garrantzitsuena izan zen filma kaleratzeko Milosek 18 urte bete arte itxoitea. Ziur egon nahi genuen filmak ez zuela eragingo prozesu judizialean, eta sistema politikoak ez zuela gure aurka erabiliko. Berehala adostu genuen hori, nahiz eta jakin horrek zain egotera behartuko gintuela. Baina, berez, ez zitzaidan gehiegi inporta. Ez zait gustatzen filmak ulertzea momentu jakin bateko gertakari gisa; niretzako, unibertsalak dira, eta denbora ez da horren garrantzitsua. Filma harreman baten ingurukoa da, sentimenduen ingurukoa, eta horiek iragangaitzak dira, denborarik gabekoak. Gehiago ere itxoin nezake. Hiru urtez filmatu nuen, eta urtebeteko muntaketa lana egin genuen.

Nolakoa izan zen muntaketa lana? Ziur aski material asko zegoen, gehiegi.

Bai, eta horretaz gain, gehienetan ez zen ezer gertatzen. Haien egunerokoa filmatzen nuen. Filmatzen ari nintzen bitartean banekien eszena horietan, lehen begiratuan, ez zela gauza handirik gertatzen. Baina gerturatu ahala, gauza asko gertatzen ari ziren eta tentsio handia zegoen. Nire buruari galdetzen nion ez ote zen izango aspergarria. Pazientzia handiz filmatu nuen, oso begirada behatzailez, han egonez, zain. Haien atzetik mugitzen nintzen. Eta saiatzen nintzen ezer ez galtzen. Muntaketa lana oso zaila izan zen, urtebete inguru eman genuen, eta Anna Garncarvzykek lan benetan ona egin zuen.

Zein finantzazio izan zenuen filma aurrera atera ahal izateko? Zein harreman zegoen poloniar estatuarekin zentzu horretan, LGTB mugimenduarekiko dituzten politikak kontuan izanik?

Hasieran bakarrik hasi nintzen, nik neuk finantzatuta. Filmatzen hasi nintzen material nahikoa izan arte, teaser bat editatzeko adina. Gero Agnieszka Skalskaren Koi Studio ezagutu nuen, edo berak aurkitu ninduen ni, eta elkarrekin jarraitu genuen lanean. Doc Poland bezalako hainbat programatara aurkeztu genuen proiektua, eta Alemaniako koprodukzioa lortu genuen. Poloniar telebista nazionalak debekatua du LGTB kolektiboarekin lotutako filmei dirua ematea, beraz, bide hori ezin genuen jorratu. Ez genekien Poloniako Film Institutu Nazionalak dirurik emango zigun edo ez, eta diru kopuru txikia eskatu genion. Ondo atera zitzaigun. Skalska produktoreak lan benetan ona egin zuen.

Filma Polonian erakusteko asmoa duzue?

Estreinaldi nazionala Varsovian egingo da Millenium Docs Against Gravity jaialdiaren baitan. Hori izango da, beraz, lehen proiekzioa Polonian. Gero zinemetan emango dute hiri nagusienetan, eta ostean, pentsatzen dut sareko plataformaren batean amaituko dugula. Uste dut prest gaudela jendeak filma ikus dezan eta horren inguruan hitz egin dezan. ●

LIBURUA

Basa eta beza



ZOONOMIA
NEREA ARRIEN
PAMIELA, 2022

MADDI GALDOS ARETA

Piztiak, etxe-abereak zein aldi berean piztia eta etxe-abere diren orotariko animaliak dira nagusi Nerea Arrienen (Lekeitio, 1976) *Zoonomia* (Pamiela, 2022) poema-liburuan. Narratiba lanak argitaratu ditu orain arte lekeitiarrak, eta hauxe du poesiari dagokionez plazaratutako lehena, ekainean Xabier Lete VI. Poesia Saria eman ziona. Berrogeita hiru poema biltzen ditu sei ataletan bestiario pertsonal legez aurkezturiko liburuak.

Ugaztun, arrain, narrasti eta abarren taxonomia dute buru poemok, eta ezkata, luma, apatx, letagin eta arantzak dira han-hemenka. Animalion jokabide zein ezaugarrien xedatze poetikoak bide ematen dio animalia ere baden gizakiaren jokabide eta ezaugarrien inguruko hausnarketari. Zehazki, emakumetasuna eta amatasuna dira ardatz bilduman, eta identitate horien arteko nolabaiteko talkak familia, zaintza, desira, maitasuna, gizonen eta emakumeen arteko harremanak eta beste hainbat gai dakartza orriotara: "Sugearen mudak dira nire jantziak / ezkatez eginiko nortasunak: / ama, alaba, maitalea, etxekoandrea, / badakizu zuk, biluzik ikusten nauzun saihets gabeko Adamak, / horiek eranstea / benetan zaila dela". Narratiboena den *Bos behia* poemak iradokitzen duen ariketa ere bada, beraz, lan hau: mingarri suerta badakiguke ere ispiluaren parean jartzearena, alegia.

Atentzioa ematen du olerkiok osatzeko erabilitako hizkera poetikoak: gailentzen den kutsu zientifikoaz gain, kultura-ondare eta aztura ezberdinei egindako erreferentziek zein erlijioari loturikoek aberasten baitute, irakurleari gozagarri baina zorrotz ere bazaion irakurketa proposatuta.

Basatzearen eta bezatzearen artean kokatzen den espazioan idatzita dakarkigu Arrienek gorputzaren memoria, tartean enara saguzar bilakatuta, belea usoz mozorrotuta. "Entzun / zaunka, ulua, intziria, aiuma, adausia, / entzun / nire arnasan bizi den garradun piztia, / entzun / astiro zahartu nahi ez duen aberea, / entzun / nire hezur arteko zootik ateratzen den emea". *Homo bipedoa* poeman zorionaren eboluzio inbertso izendatzen duenaren aurkara, eguzki berrien xerka egindako ibilbidea da, hala, *Zoonomia*. ●



MUSIKA

Ez dute inor lapurreta egitera gonbidatuko

ZARATA
PERLATA & THE DILLINGERS
AUTOEKOIZPENA, 2022

IKER BARANDIARAN

Arrasateko Perlata taldea ez da, bada, ia inorekin ezkontzekoa. Haien bide propioa egiten dihardute 2015etik, inguruan zer egiten den begiratuta bai, baina norabide eta erritmo propioan, eta ez lasaian, hain justu. Disko eta kilometro dezente daramate bizkarrean. Harritu nau, baina antza Oibarreko (Nafarroa) The Dillingers banku lapurren trenak haien arreta piztu, eta animatu dira elkarrekin ikatza bota eta bankuaren kontra egitera.

The Dillingers proiektua arrasatearrena baino gazteagoa da; hala ere, dagoeneko badute 2020an kaleratutako disko bat, eta indartsu datoz kontzertuetan. Emango dute egurra!

Honako diskoan launa kantu grabatu dituzte, eta bederatzigarrena, *Rock-and-roll herido* deritzona, elkarrekin egin dute.

Perlataren kantutegiarekin hasita, *Gurea zen*-ek rocka eta punka bietatik dauka eta baita tempo erdi zein azkarragoak, beti erraietatik, baina orain arte baino ñabardura gehiagorekin. *Konplize* amorratuagoa eta sendoagoa da, erritmo pisutsu eta rapeatuak (!) ere batzen dituena; ederra. Eta gaztelaniarekin ostiatxarra areagotuz doa *Las barreras* kantu erraldoian, abiadura, koru punk zainduak eta gitarra zein erritmo gogorragoak dituena. Bukatzeko, piano soinuak irekitzen duen *Respirar* sasi-balada batu dute. Hori guztia eta gehiago dira Perlata, sailkaezinak, amorratuak eta era berean sentikorrak; izan ere, beti-beti erraietatik ateratzen dute abestu beharrekoa.

The Dillingers taldea ezezaguna zen niretzat eta sorpresa hartu dut. *La diligencia* da rock-and-roll punkarra, erritmo bizikoa, jai-girokoa eta *lelOi!ak* dituena. *Ratas* 80ko hamarkadarekin bete-betean lotzen gaituen punk-rock ilun eta indartsua. La ruina punk-rock-and-roll bizi-bizia, hit!-a; eta *Vía Irati* haien jatorria aldarrikatzeko punk-rock melodiko pieza borobila.

Eta, esan bezala, diskoari akabera ematen dion *Rock-and-roll herido* sasoi bateko MCDk bezala oso gutxik idatzi izan duten tamainako punk-rock-and-roll itsaskorra musikan eta malenkonikoa hitzetan. ●

Hondakinen artean, bizitza

IÑIGO BASAGUREN-DUARTE

Sargoritik ihes egitea ezinezkoa da hiri honetan. 40 gradutik gorako tenperatura adierazi du kaleko termometroak eta porlanari kea dario. Bilbo, gaur inoiz baino gehiago, tranpa hilgarri bat da. Etxeko kobazuloan babestea aukera onena den arren, kalera irten eta asfaltozko basamortuaren mapan ezkutuan dauden kripten bila abiatu naiz. Haietako bat Ripa kaian aurkitu dut. Muelle taberna babesleku egokia da, Larraskito gune izandakoaren erraustetatik antolatutako musika esperimental emanaldia baitago bertan.

Lehenengo kontzertua Leun Dura izeneko proiektuarena izan da, Itziar Markiegik, Iker Arrazolak eta Joseba Agirrezabalagak osatutako hirukotearena. Disonantzia industrialak bateria tribalistikoekin aurrez aurre jarri dituzte organikoaren eta sintetikoaren arteko guda pizteko. Gatazka baino, sinbiosi ederra sortu da. Itziar, Joseba bidaide duela, deabru bat da makinaren buruan eta jantzita daraman maskararen azpian irribarre suntsitzailea antzematen zaio. *Arra*-ri buruz zer esan: Akauzazten bateria jotzea ez da debaldeko gauza eta bera ikusteak ez du preziorik. Hirurek soinu banda aproposa jarri diote garaien amaiera honi.

Arratsaldeko bigarren saioa beste hirukote batek eskaini du: Mikel Vega, Izarne Oyarzabal eta Fernando Ulzionek osatutakoa. Proposamen intimista honek musika, inprobisazioa eta dantza batu ditu, gitarra, saxoa eta klake dantza pausuak uztartuz. Bi norabideko erritu bat izan da, ez baitago argi nork markatzen duen erritmoa, nork egiten dion aurre ezintasunari, mutu geratzeko beldurrari, nor den gidari samurtasunez gainezka egin duen emanaldian. Sorginkeria baten menpe daude agertoki gainekoak eta horrela gaude ere inguruan gabiltzanok. Arteak liluratu behar du eta hori lortu dute zoruari deika egindako inbokazioei esker.

Luxua da Garazi Navas zuzenean ikustea. Abangoardia eta akademizismoaren mugetan igeri egin eta akordeoia beste dimentsio batera eramateko gai da. Maisuki menderatzen du bere gorputzaren apendize organiko bat gehiago izango balitz bezala. Muelleko emanaldian minezko melodiak sortu eta han gaudenak mutu utzi gaitu. Infernuko hauspoa ezizena gutxitan izan da hain aproposa. Abestera ere ausartu da, mikrofonoaren laguntzarik gabe akordeoiaren soinuei gailenduz. Magia hutsa.

Azkenak Miriam Rzm eta Garazi Gorostiaga izan dira. Lehenengoa sentsoredun jantzi batekin igo eta bere buruarekin zein bere kidearen gorputzarekin jolasean ibili da, hau sintetizadoreekin dabilen bitartean, bien arteko kontaktuari soinua ateraz. Lagunen arteko jolas bat bezala hasi da, une liluragarriak sortuz.

Teoria batzuen arabera kolapsoa gertatuko denean onddoak izango dira bizirik atera eta lurra berpiztuko dutenak. Onddoak, organismo txiki eta misteriotsu horiek. Gure hirien kolapsoaren aurrean, baita kolapso kulturalaren aurrean ere, onddoak bezala loratzen hasi diren ekimenek piztuko digute esperantza. Muellen gertatutakoa adibide bat besterik ez da, beste asko etortzear daude eta. ●

EGILEA | **ANA ZAMBRANO**

Puzzlea

KOKA EZAZU PIEZA BAKOITZA DAGOKION TOKIAN ETA AMELIA TIGANUSEK, PROSTITUZIOAREN ABOLIZIOAREN ALDEKO AKTIBISTAK, ESANDAKO ESALDI BAT IRAKURRIKO DUZU.





Sudokuak

BETE ITZAZU GELAXKAK 1ETIK 9RAKO ZENBAKIAK IDATZIZ, ZUTABE, LERRO ETA 3X3 KOADRO BAKOITZEAN ERREPIKATU GABE.

ERRAZA

	6	4	7			3		2
	7		5		6	9		
1	3		4	2		5	6	
9			1	7	5	4		
6			8		3	2	9	5
	4		2	6	9	1		8
		3		5	4			1
	2	1		8	7			
7	5	6						9

ZAILA

			8	6				
					5	1		4
1	7				9			
				8				2
6					2			5
	3	8	6					
			5		8	4		
	9	5					3	
7							9	6

5x5

ZEHARRETARA ETA GOITIK BEHERA, HITZ BERA.

1. Kategoria, neurri. 2. Ar sortzaileak. 3. Erabat lasterka. 4. Atsegin. 5. Erru, huts.



Hizki berak

OSA ITZAZU HITZAK FALTA DIRENAK HIZKI BERAK DIRELA KONTUAN IZANIK, HORI BAI, HURRENKERA EZ DA ZERTAN BERA IZAN.

1				Z	E	T	S	U
2	P				N	I	T	U
3	A	B				Z	I	A
4	B	I	Z				K	U
5	K	R	A	B				N
6	P	L	E	I	P			

EBAZPENAK

PUZZLEA: "EZ DUT PROSTITUZIOAN ARITZEN DEN NESKARIK EZAGUTU UTZI NAHI EZ DUENIK. DENAK DAUDE HOR HAIEN BORONDATEAREN KONTRA, BESTE IRTENBIDERIK EZ DUTELAKO"

5X5: 1. MAILA, 2. AITAK, 3. ITOKA, 4. LAKET, 5. AKATS.

HIZKI BERAK: 1. LEIZETSU, 2. PLEINITU, 3. ABILEZIA, 4. BIZILEKU, 5. KRABELIN, 6. PLEIPLEI.

ZAILA

5	4	3	8	6	1	7	2	9
8	2	9	3	7	5	1	6	4
1	7	6	4	2	9	8	5	3
9	5	4	1	8	3	6	7	2
6	1	7	9	4	2	3	8	5
2	3	8	6	5	7	9	4	1
3	6	2	5	9	8	4	1	7
4	9	5	7	1	6	2	3	8
7	8	1	2	3	4	5	9	6

ERRAZA

5	6	4	7	9	1	3	8	2
2	7	8	5	3	6	9	1	4
1	3	9	4	2	8	5	6	7
9	8	2	1	7	5	4	3	6
6	1	7	8	4	3	2	9	5
3	4	5	2	6	9	1	7	8
8	9	3	6	5	4	7	2	1
4	2	1	9	8	7	6	5	3
7	5	6	3	1	2	8	4	9

Aitor Bedialauneta Arrate

EUSKAL GORRAK ELKARTEAREN PRESIDENTEA

"Gorrak gutxiengo soziolinguistikoa garela uste dugu"

Zeinu hizkuntzaren interpretearen ezinbesteko laguntzaz egin diogu elkarrizketa Aitor Bedialauneta Arrateri (Ondarroa, 1991), Euskal Gorrak EAEko gorren elkarteen federazioaren presidenteari. "Interpretearen mendekotasunik dudan? Une honetantxe, biok daukagu", irakatsi digu halako batean. Gor jaio zen Bedialauneta, eta gorrak dira haren gurasoak. Ez da ohikoena, ikusiko dugunez.

UNAI BREA HODEI TORRES

Zein da gorren aldarrikapen nagusia?
Asko daude. Kontua da gizartea ez dela oraindik guregana egokitu. Gure "desgaitasuna", nolabait esatearren, hizkuntza propioa duen desgaitasun bakarra da; zeinu hizkuntza, hori dugu ezaugarri. Hartara, guk ez dugu geurea desgaitasuntzat hartzen. Ikuspuntu soziolinguistikotik ikusten dugu kontua, gutxiengo soziolinguistikoa garela uste dugu. Ez dugu inolako arazorik gure artean komunikatzeko; gizartearekin komunikatzean agertzen zaizkigu oztopoak, gizarteak oraindik ez baitaki gor izateak zer dakarren. Beraz, gure aldarrikapen nagusia da errespeta gaitzatela, errespeta daitezela gure hizkuntza, gure kultura eta gure nortasuna. Zeinu hizkuntzaren interpreteak egon daitezela, eta azpititulazioa, eta maskara gardenak...

"Gizarteak oraindik ez daki gor izateak zer dakarren", diozu. Zer dakar?
Askotan, gizarteak uste du gor bat entzuten ez duen norbait dela, besterik gabe. Eta ez da hala. Horretan oker dabil gizartea. Gure oztopo nagusia komunikazio eta informazio falta da. Berdin dio entzumen zantzuak izateak, kokleako inplantea izateak, audifonoa edukitzeak edo ahoz ondo hitz egin ahal izateak... Gor batek komunikazio eta informazio falta du.

Orduan, funtsean, diskriminazio soziolinguistikoa jasaten duen komunitatea da zuena?
Bai. Orain kezkatuta gauzkan adibide bat heziketa da. Haur gor askori ez zaie zeinu hizkuntza irakasten. Gizarteak uste baitu inplantea edo audifonoa ezartzea, ahoz hitz egiten irakastea... nahikoa izango dela, eta hori huts handia da.

Zergatik?
Pertsona gorrak betiko direlako gor. Hori da abiapuntua, eta argi geratu behar du hasieratik. Baliteke gor batek ahoz hitz egiteko ahalmena izatea, edo zerbait entzun ahal izatea, baina ez "gizarte entzuleak" bezala. Horregatik esan dut komunikazio eta informazioa falta daudela, lehen minututik. Baina guk badugu hizkuntza

HIZKUNTZEI BURUZKO NAHASMENDUA

"Euskarazko zeinu hizkuntzarik zergatik ez dagoen galdetzea okerreko planteamendua da. Zeinu hizkuntzak ez dira ahozkoen menpekoak. Independenteak dira. Kontua da ez dagoela euskal zeinu hizkuntzarik, besterik gabe. Hemen, espainiar zeinu hizkuntzaz ari garenean, zeinu berezi batzuk erabiltzen ditugu, kulturalki 'gureagoak', baina horien kopurua ez da nahikoa euskal zeinu hizkuntza bat dagoela esateko. Eta ezin dugu zeinu hizkuntza asmatu. Hizkuntzak bizirik daude, egokitu eta aldatu egiten dira, eta, denboraz, hizkuntza desberdinak izatera irits daitezke. Iberiar penintsulan bik daukate onarpen ofiziala: espainiarrak eta katalanak".

"Pandemiaren kudeaketan erakundeek ez gaituzte kontuan hartu, telefono bidezko harremana lehenetsi baita".

natural bat. Jaiotzatik irakatsiz gero, informazioa eskuratzeko aukera dugu.

Eta zergatik ez da irakasten?
Haur gor gehienak entzule familietan jaiotzen dira. Haiek ez dutenez komunitate hau ezagutzen, shock une horretan, lehenbizi, medikuarengana eramaten dute haurra, irtenbide baten bila, eta eskaintzen zaien irtenbidea kokleako inplantea da, edo audifonoa. Ez zaio arazoari ikuspuntu soziolinguistikotik heltzen, ikuspuntu medikotik baizik.

Fisiologikotik, nolabait esateko?
Bai, hala da. Eta guk eskatzen dugu bi ikuspuntuetatik hel dakiola. Inplantea baliabidea da eta aurrera egiten lagundu dezake, baina zeinu hizkuntzak ere egon behar du.

Nolanahi den ere, gizartearen gehiengoa analfabetoa da zeinu hizkuntzan. Eta zuek gutxiengoa zarete, ez dakit noraino txikia...
Gizartearen %2,3 inguruk du entzumen desgaitasuna, eta horren barruan gutxiengoa da zeinu hizkuntza dakiena. Euskal Gorrak da gorrak ordezkatzen duen erakunde bakarra, eta kolektibo guztiei ematen diegu arreta, ez zeinu hizkuntza erabiltzen dutenei bakarrik. Entzumena galduz doazen adinekoak, istripu batengatik egun batetik bestera entzumena galtzen dutenak... Egokitu gaitezke, eta denentzako komunikazio estrategia bilatu. Euskal Gorrakek ez du zeinu hizkuntza exijitzen. Komunikazio bideak exijitzen ditu, informazioa eskuratu ahal izatea. Eta hori modu batean baino gehiagotan lor daiteke.

Zuk unibertsitatean ikasi duzu, eta beste gor askok ere bai. Hala ere, hezkuntza sistemaren gabeziak salatzen dituzue.
Hezkuntza sistema entzumen normaltasunerako prestatuta dago. Profesional askok, eta familiek, pentsatzen dute kokleako inplante batek arazoa konponduko duela; guk, berriz, hezkuntza elebidunaren alde egiten dugu. Hau da, garrantzitsua da, jakina, irakurtzen eta hitz egiten ikastea, baina haur gor txikientzat funtsezkoa da, halaber, zeinu hizkuntzaz komunikatzea, hori baitute hizkuntza naturala. Desgaitasuna duten pertsonei buruzko NBEren hitzarmenak dio haur gorrek eskubidea dutela zeinu hizkuntza ikasteko. Espainiako Estatuak hitzarmen hori sinatu du, baina ez da gauzatzen; arau horiek askoz garapen handiagoa behar dute. Familien lehentasuna, ordea, beren haurrak entzule bihurtzea da.

Gor batek ezin du irakurri entzuten duen baten erritmo berean. Zergatik?
Entzuteko gaitasunarekin jaiotzen direnek etengabe jasotzen dute informazioa, eta informazio hori, nolabait esatearren, doakoa dute, ez dute haren bila joan behar. Gor batek ez du hori; gor gehienak entzule familietan jaiotzen dira, eta familiak partekatzen duenaren zati handiena galtzen dute. Azken batean, irakurtzeko edo ikasteko, denbora luzeagoa behar dugu, etengabe galtzen ari garen informazio hori osatzeko. Ez gara motelagoak edo ahalmen urriagokoak; kontua da ez zaigula informazioa iristen gure hizkuntza naturalean. Mundu guztiak zeinu hizkuntza jakinez gero, nik une oro jasoko nuke informazioa, eta besteen abiadura berean egingo nuke aurrera. ●

BABESLEA:

Uberreko buruzagiak zelula maoista gisa ulertuta

GORKA BEREZIARTUA MITXELENA

Fantasia eta negozioa eskutik helduta etortzen dira normalean, horregatik komeni da sinesgogor samarrak izatea zelofan askorekin bilduta kontatzen dizkiguten historiekin. Duela ez hainbeste medioetan ikusi genuen ipuin batek balio dezake kontu hau ilustratzeko: 2008ko neguan Parisko kale elurtuetan taxi bat lortu ezinda zebiltzan bi estatubatuar. Ideia jenial bat eduki zuten.

Ipuinaren arabera, "eureka!" esaten imajinatu behar ditugu Travis Kalanick eta Garrett Camp yankiak: taxiak baino zerbait hobea bururatu, horrela, batbatean. Eta ez, ez zen garraio publikoa –inbento zaharkitu eta *demodé* hori– hobetzeko sistemaren bat, aplikazio bat baizik, telefonoko tip-tap azkar batekin aukera emango zizuna auto pribatu bat txofer eta guzti kontratatzeko, merke gainera. Handik urtebetera, Errauskine mambo bila atera zen gau hartan kalabaza zalgurdi bihurtu zen modu berean, Uber izeneko enpresa agertu. Orain milioiak balio dituen ideia, ia kasualitatez bezala sortua eta blablabla.

Ez dizut esango ipuina polita ez denik, baina Olentzerorena ere bada, eta gero, egia kontatzen dizutenean etortzen dira negarrak eta marruak. Uberren kasuan, egia esan, jende asko zegoen moskeatuta aspaldidanik, baina *The Guardian* egunkari britainiarrak publikatu duenaren ondoren, ea zeinek daukan gibela hemendik aurrera berriz kontatzeko ideia distirant batean oinarritutako *startup* arrakastatsuaren istorioa. Legeak hautsi dituzte, gobernuak presionatu, ahal izan duten guztia engainatu... eta mobilizazioak deitu.

Paris berriz ere, baina 2016an: Uberrek egiten dien konpetentziagatik taxi gidariak mila deabruren amorrazioa dute zainetan. Hiria inguratzen duen errepidea blokatzen ari dira, gurpilak erretzen, eta parean tokatuz gero muturra txikituko liokete aplikazioarentzat lan egiten duen gidariren bati. Liokete? Lillen txikitu zioten bati. Antzeko eszenak Marseillan, Tolosa Okzitanian, Aixen-Provencen. Europa erdian hasiak ziren "taxien gerrak" handik gutxira.

Orain badakigu, Londresko egunkariari filtratu dizkioten milaka barne-dokumenturi esker, Uberren orduko buruzagiei zer okurritu zitzaien saltsa horren erdian: "Desobedientzia zibila", idatzi zuen Kalanick-ek. "15.000 gidari ditugu... 50.000 erabiltzaile... martxa baketsua edo eserialdi bat". Matxinada antolatu nahi izan zuen Uberreko buruak. "Merezi duela uste dut", idatzi zuen. "Biolentziak arrakasta bermatzen digu. Eta tipo hauei aurre egin behar zaie, ezta? Ados nago pentsatu behar dugula zein diren leku eta denbora egokiak", erantsi zuen lankideen zalantzen aurrean.

Burugabekeria dirudi. Horregatik, Jean-Luc Godarden *La chinoise* pelikulako zelula maoistaz gogoratu beharra dago gauzak ondo ulertzeko. Filmaren hasieran, taldeko kide bat etxera egurtuta iristen denean, burkide batek esaten du: "Etsaiaren erasoak jasatea gauza ona da, erakusten duelako distantzia argi batek bereizten gaituela". Uberreko buruzagiak mezua hitzez hitz errepikatu ahalko luke.

Aurrerago, filmeko protagonistak biltzen diren etxeko horma batean zera irakurtzen da: "Ildo iraultzaile zuzena daukan gutxiengoa ez da gutxiengoa". Multinazionalak ere, nik uste, espiritu leninista horrekin gidatzen dituzte gaur egun. Ez dira dirua irabazten bakarrik ari, kontsumitzaileen iraultzaren abangoardia dira. Eta inork ez die fanatiko deitzen, harrigarria da. ●

3. argitaraldia

XAPOKETAN

KARTA-JOKOA

Ezagutu Euskal Herriko animaliak!

Euskal Herriko lurralde banatako zazpi ekosistema eta 42 animalia ezagutuko ditugu. 5 jolas ezberdin egin daitezke: familia jolasa, puzzlea, ezkutaketa eta memoria eta azkartasun jokoak.

EDUKIAK:
Iñaki Sanz Azkue biologoa

IKUSPEGI PEDAGOGIKOA:
Lore Erriondo EHUko irakaslea

MARRAZKIAK:
Eñaut Aiartzaguena

15 €

Bidalketa gastuak: 5 €
40 €tik gorako erosketetan, bidalketa doan.

Eskaerak: **azoka.argia.eus** / (+34) **943 37 15 45**

ARGIA

GURE HEROIAK

Elkanoren eta Euskal Herriko kolonialisten historia bat

Ez zu eta ez ni ez gara kolonialista, inbaditzaile, konkistatzaile, ezta esklabista ere. Inork ez ditu bere egiten euskal herritar askok (ere) mende luzez egindako astakeria horiek. Ordukoaz guk ez dugu ardurarik. Baina konkistatzailea *esploratzaile*, kolonizatzailea *humanista*, eta esklabista *enpresa-gizon* bilakatuta, iraganean gertatutakoa hemen eta orain ospatzen eta zuritzen dugunean, orduan bai, ardura gurea da berdintasunean eta justizian oinarritutako etorkizuna eraiki nahi badugu.

18€

+ 5€
bidalketa gastuak.

40 €-tik gorako erosketetan, bidalketa doan.

BIZUM bidez ere ordaindu daiteke.

azoka.argia.eus (+34) **943 37 15 45**

ARGIA LIBURUAK